

415.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2021EKO-ABENDUA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



ETORKINAK
**MUNDUTIK
AZKOITIRA**

I N N O V A

AZPEITIA

MORTE KLIRING



Jose Artetxe 5 • 943025955

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

Gabon Zoriontsuak eta Urte Berri On!

Hiru urte zuen ametsak egi bihurtzen, mila esker.
Zuen bidelagun izaten jarraituko dugu.



4 logela - 2 bainugela - 90m²
Ametsetako etxebizitza Ibaiondo
Kalean

Salgai
290.000€



3 logela - 2 bainugela - 98m²
Etxebizitza ikusgarria Burdinoleta
Kalean

Salgai
255.000€



PREZIO BERRIA

4 logela - 2 bainugela - 95m²
4 logeladun etxebizitza Aingeru Kalean

Salgai
175.000€



PREZIO BERRIA

2 logela - 2 bainugela - 86m²
Kale Nagusian kokaturiko etxebizitza
bikaina

Salgai
215.000€



PLANO BERRIA

IBAIONDO BERRI
Promozio berriko etxebizitzak

Salgai
Kontsultatu



3 logela - 1 bainugela - 80m²
Etxebizitza eguzkitsua Xabier Muniñe
Kalean

Salgai
170.000€



Eskaintza osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 415.

2021-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ITXARO IRAETA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Ane Olaizola,
<i>Atzeritartasuna</i> | 25 | Iritzi grafikoa Gorka Larrañaga |
| 6 | Hitz bitan Mikel Larrañaga,
Alemanian bizi den azkoitiarra | 26 | Erretratua Jeno Oartzabal, ballet
dantzaria |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Aitor Goenaga,
<i>Hegal</i> | 30 | Plazan bazan |
| 10 | Iritzia Joseba Epelde, <i>Egia-osteaz</i>
Yolanda Larrañaga, <i>Gogoan zaitut</i> | 32 | Akordatzen Betleemgo zati bat
Azkoitian |
| 12 | Erreportajea Urrun dituzte
sustraiak | 35 | Bestaldetik Axen Etxaniz, Olaberri
tabernako arduradun ohia |
| 18 | Iritzia Ioritz Gonzalez, <i>Zurkaitzak</i> | 40 | Klik! Herriko altxorrak |
| 20 | Elkarriketa Mirentxu Larrañaga,
itzultzailea eta zuzentzailea | 44 | Iritzia Maite Lopez Las Heras,
<i>Disimuloaz</i> |
| 24 | Zakelmari | 46 | Euskara Ixabel Jauregi, <i>Euskaratik
sortu</i>
Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Eizagirre
Andoni Elduaien
Ane Olaizola
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Itxaro Iraeta

Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Aitor Goenaga
Joseba Epelde

Yolanda Larrañaga

Ioritz Gonzalez

Gorka Larrañaga

Saioa Murua

Alex Berasategi

Maite Lopez Las Heras

Ixabel Jauregi

Silvia Etxaniz

Administrazio

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:


SS-706/97

ISSN: 1137-8891

Tirada: 850 ale



PUBLIZITATEA



Atzeritartasuna



ANE OLAIZOLA

Euskal gizartea solidarioagoa omen da etorkinekiko; COVID-19ak eragindako izurriaz geroztik, inoiz baino toleranteagoak ei gara atzeritik datozenekiko. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak joan zen hilean aurkeztu zuen 2021eko Barometroa, jatorri atzerritarra duten biztanleekiko jarrerak eta pertzepzioak zein diren jakiteko, eta ondorioztatu du osasun eta gizarte krisia izanda ere, euskal gizarteak "jarrera inklusiboarekin" erantzun duela.

Kontrakoa izan zitekeen, ordea: pandemiaren ondorioz, jatorri atzerritarra dutenekiko intolerantzia areagotzea. Izan ere, orain arteko datuek erakutsi izan digute krisi garaietan atzeritarrenganako jarrera baztertzaileak areagotu egiten direla. Barometroaren arabera, dena den, gaur-gaurkoz, tolerantzia indizea 66 puntukoa da, inoizko handiena. Halere, elkartasun horrek badu prezio bat: "[Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako biztaneek] aitortzen dute etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko", dio txostenak. Are gehiago: herritarren %70,7k uste dute etorkinak beharrezkoak direla ekonomiarako, eta %66k diote haiei esker ekonomiak hobera egiten duela, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. Min eman dit horrek; etorkinak zergatik dira beharrezko, guk nahi ez ditugun lanpostuak bete ditzaten? Eta sektore batzuetan bakarrik al dira premiazko? Jakinekoea da arrazakeria eta klasismoa eskutik joan ohi direla, eta adierazpenok badute klasismotik zerbait. Berdin hartuko al genituzke atzeritarrak, besteok saihestu nahi ditugun lanbideak haiek beteko ez balituzte? Sistemaren hierarkia ukitu eta gure erosotasuna kolokan jarriko balute, beharbada, ez genituzke modu berean hartuko.

Migratzaileei buruzko zurrumurruek pisua galtzen jarraitzen dutela ere ondorioztatu du txostenak, baina, egia esan, zaila egiten zait azterketarako galdeketa erantzuten ari den horrek politikoki zuzenak ez diren adierazpenak egiten imajiinatzea. Hain justu, txostenaren berri eman eta biharamunean, azal iluneko gizonezko bat bere autoan pasatzen ikusi dugu kalean gabiltzala, eta lagunak zera bota dit: "Begiraiozu zer-nolako autoa duen kanpotar horrek". Isilik erantzun diot, jakinda ere horrek zilegi ez diren jarreraren konplize egiten nauela.

Behin, atzerrian jaiotako batek (euskaraz) kontatu zidan urteak zeramatzala herrian bizitzen, hemengo bizimodura ondo egokituta zegoela, eta euskaraz hitz egitean are gertuago sentitzen zuela bertako jendea, baina bertakoek, askotan, oraindik kanpotartzat hartzen zutela. Atzeritarrak, orduan, noiz uzten dio atzeritar izateari? ■■■

ETORKINAK ZERGATIK DIRA BEHARREZKO, GUK NAHI EZ DITUGUN LANPOSTUAK BETE DITZATEN?

"Duela 32 urte erori bazen ere, harresiak hor jarraitzen du"

TESTUA: ANE OLAIZOLA

ARGAZKIA: MIKEL LARRAÑAGA

Alemanian bizi da Mikel Larrañaga (Azkoitia, 1991) duela sei urtetik. Berlinen egin zituen aurreneko hilabeteak eta, harrezkero, Leipzig hirian bizi da, herrialdearen ekialdean. Han amaitu zituen Ingenieritza elektriko ikasketak, eta egun, koadro elektrikoak egiten dituen enpresa batean dihardu, proiektuak egiten.

Zer dela-eta joan zinen Alemaniara bizitzera?

Duela zortzi urte inguru, lagunekin oporretara joan nintzen Berlinera, eta han denboraldi bat igarotzeko gogoa piztu zitzaidan. Unibertsitateko ikasketak amaitzen ari nintzela, Erasmus bekarekin horiek atzerrian amaitzeko aukiera sortu zitzaidan. Berlinera joateko aukerarik ez zegoen, baina Leipzig gertu zegoen. Baldintzetako bat, ordea, alemana jakitea zen, eta beraz, lehenengo zortzi hilabete Berlinen igaro nituen horretan. Ikasturteko azken hiruhilekoa egin nuen Leipzigen. Azkenean, hiria gustatu egin zitzaidan, eta hemen geratu nintzen.

Hain zuzen ere, Leipzig Berlinen alternatiba dela diote.

Jendeak dio Leipzig Berlin berria dela, baina Berlin bakarra da. Ezin dira bi hiriak alderatu. Berlin hiri handi bat da, Leipzigen ondoan munstro bat.

Zenbat biztanle ditu hiriak?

Egun, 550.000 biztanle inguru ditu, baina Alemania zatitzen zuen harresia erori arte, milioi bat lagun bizi ziren. Horrela esanda, oso hiri handia dela dirudi, baina oso zabala da, eta auzoka sakabanatuta dago. Beraz, herri kutsua du. Hiriaren hegoaldean dagoen Conebits (¿) auzoan bizi naiz, eta ez naiz asko irtetzen handik.

Bizikletaz, hamar minutura lakua eta basoa ditugu, eta beraz, ingurumena gertu dugu.

Harresia aipatu duzu. Ekialdeko Alemanian zegoen Leipzig, komunisten esku. Horren arrastorik antzematen al da oraindik?

Zeharo nabaria da. Duela 32 urte erori bazen ere, harresiak hor jarraitzen du. Jendearengan, kulturen, etabatezere, ekonomian antzematen da. Mendealdean soldatak askoz ere handiagoak dira.

Leipzig ezaguna da kulturari eta bereziki musikari lotutako hiria delako. Hala al da?

Bai, oso lotuta dago. Hain zuzen, musika klasikoan ezagunak diren artistekin harreman estua du. Opera ere badu hiriak, baita musika klasikoa egiten duen banda ere. Horrez gain, era askotako musika sortzen da hemen: punka, hardcorea, rocka, technoa, jazz... Mugimendu handia dago, azkenaldian asko apaldu bada ere.

Zer da hortik gehien gustatzen zaizuna?

Lasaitasuna. Beste hiriekin konparatuta, lasaiagoa da, eta aglomerazio gutxiago du. Natura gertu du, eta hiri freskoa da.

Nola hartzen ditu herrialde horrek zu bezalako gazte atzerritarrak?

Askotariko gauzak entzun daitezke horri buruz. Jendeak dio ekialdeko Alemanian nazi asko daudela. Eskuin muturrak boto asko irabazten ditu lurralde honetan [Sajonia]. Hain zuzen, Alemania osoan, eskuin muturrak boto gehien eskuratzen duen eremua da hau. Ordea, Leipzig irla bat da zentzu horretan. Lana, Leipzigitik kanpo egiten dut, eta hura Sajonia bete-betea da. Hala ere, inoiz ez dut arazorik izan. Beharbada, errefuxiatuek edo beste etorkin batzuek oso bestelako bizipenak izango dituzte. Nire lagun taldean badaude Siriako gerratik ihes egin duten errefuxiatuak, eta haiek ere arazorik ez dutela eduki iruditzen zait. Atzeritar asko dago hemen.

Azkoitira itzultzeko asmorik ba al duzu?

Dagoeneko sei urte daramatzat hemen, eta une hauetan, hau da niretzat etxea. Etxera itzultzeak esanahia galdu du niretzat. Ez dakit zer egingo dudan, baina oraingoaz, ez dut aurreikusten Azkoitira bueltatzerik. Urtean bitan saiatzen naiz herrira joaten; udan, hilabete bat igarotzen dut, eta Gabonetan, pare bat aste edo. Bi bisita horiekin asetzen naiz. Askok gustatzen zait udan Euskal Herrira joan eta familiarekin zein lagunekin egotea. Gustuko ditut hango inguruak, baina gustura etortzen naiz handik Leipzigera. Oraingoaz, hemen jarraitzeko asmoa dut, baina nork daki gero zer egingo dudan. ■■■



Hegal

ARGAZKIA ETA TESTUA: AITOR GOENAGA

Tik tak, tik tak... Hemen dira
berriz ere Eguberriak. Aulki
hutsak. Apal beteak. Hego Berri
On. ■■■







Egia-osteaz

Ez nengoen oso seguru: ni bezalakoei bakarrik gertatzen ote zitzairen? Azkoitiarrok xanoak garelako izan zitekeela uste nuen. Baten batekin hitz egitean, solaskideak esandakoa sinesteko joeraz ari naiz, gezurretan ariko dela bururatu ere ez izanaz. Baina ez omen da azkoitiarren eta mundu guztiko xanoon kontua bakarrik: TDT (*Truth-Default Theory*) teoriaren arabera, norbaitekin hitz egiten hasten garenean, joera orokorra bide da egia esaten ari dela ziurtzat jotzea. Eta, jakina, horrek arriskuan jartzen gaitu ziria sartu nahi digutenen aurrean, eta, aldi berean, adi egotera behartzen gaitu.

Ez dira falta, tamalez, gehienon ahulezia endemikoaz aprobetxatzeko prest daudenak. Zenbait politikarik, esaterako,

argi ikusi dute etekin handia atera dezaketela egia izenean gezurrak saltzetik. Brexitarekin gertatutakoaren ondoren hasi zen jendea egia-osteaz hitz egiten, etapa berri batean bageunde bezala; garai bateko egia zereginik ez duen aro berri batean, alegia. Baina praktika hori askoz lehenagotik dator: ez al zuen Goebbels-ek esaten gezur bat behar adina aldiz eta behar bezala errepikatuta egia bihurtzen dela? Ez al zituen Reaganek pelikuletan ikusitako pasadizoak berari benetan gertatu balitzaizkio bezala kontatzen? Azken batean, boterea duenak errealitatea (jendearen buruan dagoena, behinik behin) desitxuratzeko tresnak eta ahalmena izaten ditu, gertatutakotik komeni zaiona aukeratuz edo, besterik gabe, jazotakoa alde batera

utbiz, hala komeni bazaio; eta boteretsu askori bost axola zaio errealitatea, nahi dutena lortzeko gai badira. Asko dakite horretaz politikarien komunikazio-arduradunek.

Egia-ostearen iritsieraren sorburuan, zenbait adituk Nietzscheren, Foucaulten, post-modernoen, Kuhnen eta beste hainbaten erlatibismoa jartzen dute. Nik dakidala, egia absolutuak edo guztiz zehatzak (Jainko bati legezkiokkeenak) jarri dituzte zalantzan pentsalari horiek, egia guztiak, gizatiarrak diren heinean, interpretazio mugatuak direla azpimarratzeko. Baina horrek ez du esan nahi interpretazio guztiak maila berean daudenik, nahiz eta maiz, batzuen arteko muga lauso samarra den. Izan ere, bizimodu praktikoan, ia gehienok jartzen gara ados

HAUXE BAI JENEROA!



(testuinguruak testuinguru eta mugak muga) interpretazio egiazkoenak iruzurtienetatik bereiztean. Eta egia-ostea, nire ustez, gezurra eta iruzurra apaintzeko, mozorrotzeko eta dotore erakusteko berriki asmatutako eufemismo engainagarria baino ez da: ez du zerikusirik egia gainditzearekin, ez baita interpretazio edo ñabardura kontua, jakinaren gainean gezurra esatea edo datuak faltsututa erabiltzea baizik. Eta gezurren artean okerrena da, besteak engainatzetik norberarentzat etekina ateratzea baitu helburu, bai eta hartzailea inozotzat edo, txarrean, ezdeustzat hartzea ere. "Ez dio axola egia nork duen, boterea nork duen baizik, nire gezurrak zure egia baino gehiago balio baitu", esaten zaigu, inplizituki.

Azken ezaugarri bat egia-ostea esaten dioten horri buruz: esango nuke gure emozioetara eta barne-barnean iltzaturik ditugun aurreiritzietara tiro egiten duela. Hau da, askotan geuk ere ez dakigula barneratuta ditugun uste xenofobo, misogino, matxista, aporofobo, homofobo eta abar astintzen saiatzen dela; izan ere, errazago egiten zaigu gauza batzuk sinestea beste batzuk baino, ez baita ukagu guztia kontrastatzeko baliabiderik eta astirik.

Nor bere ideien eta aurreiritzien jakinaren gainean egotea eta mesfidantza lozorrotik ateratzea, beraz, autodefentsarako estrategiarik onena, ziria sartzen abilenak direnen desinformazioari aurre egitea eguneroko erronka bihurtu den garai honetan. ■

ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

Gogoan zaitut

Reimundez jauna, politikoki pentsamendu desberdina genuen, eta hizkuntza maitasunari zegokionez ere, talka asko izaten genituen gure egunerokotasunean. Ezin genituen elkarren lehentasunak ulertu askotan, baina elkar errespetatzen genuen, eta horrek gure desberdintasunen gainetik elkartu gintuen

Elkarrekin izan ginen zinegotzi, eta politikoki zure ideiekin bat egin ez arren, askotan esan nizun: "*De mayor quiero saber tanto como tu*". Jakituna zinen, langilea, *orsay* harrapatzea zaila den horietakoa. Zeurea inork ez bezala maitatzen eta zaintzen zenuen. Guztia ematen zenuen zeure ideien alde, oso gutxitan (nik ez bezala) altxatu zenuen ahotsa gure artean.

Azken aldiz Zumarragan ikusi genuen elkar. Ilusioa zenuen hanketan, eta bizitzeko gogoia begietan. Zoritarreko gaitz horrek eraman zaitu hemendik. Ez zaitugu gehiago ikusiko edota ez ditugu zure aholkuak jasoko, ez zara gehiago gure artean izango, baina nik, behintzat, ez zaitut ahaztuko. Udaletxean eserita gogoratuko zaitut; azkena ikusi ginenean zure begietan ikusi nuen bizitzeko gogoarekin gelditzen naiz. Gogorra zinen, baina gaixotasunak irabazi dizu lasterketa hau.

Azken aldiz esan nizkizun hitzak errepikatuko dizkizut: zaindu zaitez, Miguel. ■



Urrun dituzte sustraiak

Askotariko arrazoiek bultzatuta, beren herrialdea utzi duten 1.100 atzerritar inguru bizi dira Azkoitian. Zenbaitek hasi besterik ez dute egin bizimodu berria, eta beste batzuek dagoeneko azkoitiartzat dute beren burua, bertan daramatelako bizitzaren zati handi bat. Sei lagunen bizipenak bildu ditu Maxixatzenek.

Testua eta argazkiak:

Ane Olaizola

Nekez uzten du bere sorterrria sustraiak han dituenak. Hala diote Mikel Laboak abesten zuen Joseba Sarrionandiaren hitzek. Bizi baldintza txarrak, giza eskubideen urraketak, herrialdeko gatazkak eta indarkeria egoerak... Asko izan daitezke familia, jaioterria zein bizitza oso bat atzean utzi eta herrialde arrotz batean beste bat hasteko arrazoiak, baina ezin uka erabakia bizitzan mugarri izan daitekeenik, ezta gehienek, behintzat, halabeharrez egiten dutenik ere.

Azkoitian, 1.100 etorkin inguru daude errolatuta, udalak emandako datuen arabera. Pakistandar eta marokoar komunitateak dira atzerritarren artean handienak, eta atzetik jarraitzen diete aljeriarrek, nikaraguarrek, hondurarrek eta errumaniarrek.

Etorkin beste bizipen egon daitezkeela jakitun, jatorri desberdinetako sei pertsonen testigantzak jaso ditu Maxixatzenek: Firdau Mohamed Awal ghanarra da; Joey Albertek Filipinetan du jatorria; Michele Abrego mexikarra da; Saif Ullah Pakistandik etorri zen Azkoitira; eta Ana eta Maria Zamardzic ahizpek Bosnia utzi zuten haurrak zirenean. Etorkin bakoitzak istorio bana gordetzen du, baina elkarriketatu guztiak bat datoz hainbat gauzetan; migratu ondorengo hilabeteetako bakardade sentimendua da nabarmenena, baita Azkoitian sostengu emozionalik edo ekonomikorik ez izateak eragin dizkien oztopoak ere. Zenbaitek gainera, European legeztatuta bizi ahal izateko agiriak lortu behar izan dituzte, baimenok eskubideak ahalbidetuko dizkietela jakitun. Era berean, guztiak bat datoz euskara jakitea integraziorako giltza izan daitekeela esaterakoan ere.

"Jatorria uzten duzunean, sentimendu asko nahasten dira"

FIRDAUS MOHAMMED AWAL



"Afrikan pentsatzen dugu etorkizunik onena European edukiko dugula. Umetan, lagun artean esaten genuen, aukera edukiz gero Europara joango ginela, han bizitza hobeia izango genuelakoan". Ametsak egia bihurtzeko asmotan, Firdaus Mohammed Awalek (1993, Kuwasi, Ghana) 21 urte zituen bere jaioterria utzi zuenean, eta lau urtez Espainian bizi ondoren, 25 urterekin zapaldu zuen Azkoitia, 2018an.

Senarrak urteak zeramatzen Murtzian (Espainia) bizitzen, eta hark egoitza baimena lortu zuenean hartu zuen Mohammedek Espainiarako bidea. Urtebete eta zortzi hilabeteko umea besoetan hartuta, hegazkinez egin zuen bidaia osoa, bere senarrak ez bezala: "Senarrak ez zuen aukera bera izan,

patera batean iritsi baitzen Espainiara. Harentzat oso gogorra izan zen bidaia hura; muturreko egoerak bizi izan zituen". Oso bestelako bidaia egin zuen Mohammedek, baina biek badute zerbait komunean: "Guztia" aldatu zitzaizen bidaia hartan.

"Ordura arte, beste mundu batean bizi zara, eta mundu hori atzean uztean, berriz zerotik hasten zara bizitzen. Sentimendu asko nahasten dira orduan: beldurra, pena, ziurgabetasuna... baina baita ilusioa ere".

Hasierako urteak "gogorrak" izan ziren familiarentzat, eta Azkoitiko bizilagunak bakardade handia sentitu zuela adierazi du. "Komunikatzeko gaitasunik ez nuela zen zailena. Behinola, haurdun nengoela urgentzietara joan nintzen, eta sendagilea eta

biok ezin izan genuen elkar ulertu. Orduan erabaki nuen gaztelania ikasi behar nuela, eta Azkoitira iritsi nintzenean, euskara ikasten hasi nintzen". AEKn ari da euskara ikasten, eta hizkuntza berri bat ez ezik, Azkoitiko bizimodurako sostengu zaion pertsona bat ere ezagutu du Mohammedek. "Euskara irakaslea, irakaslea ez ezik, nire ahizpa ere bada. Gure azalaren kolorea kontuan hartu gabe, eskuzabal hartu gaituen familia aurkitu dugu Azkoitian, eta ordutik, bizitza hobeia dugu". Hain zuzen ere, egun "gustura" bizi direla adierazi du Mohammedek: "Hemen, guztiak dira atseginak. Errespetatu egiten gaituzte".

Mohammedek zazpi urte egingo ditu bere familia ikusi gabe. "Diru asko irabazi behar da Afrikara joateko". Pixkanaka, bizimoduari aurre egitea lortu du familiak, eta European etorkizunik onena topatu al duten galdetuta, zera dio: "Hein batean, egia da Europako bizimodua Ghanakoa baino hobeia dela. Hemen sistemak hobeto funtzionatzen du, eta, egoitza baimena baldin baduzu, eskubideak dituzu. Gure herrialdean agintariekin eta dirudunek soilik dituzte eskubideak".

"Jendeari gustatu egiten zaio euskaraz hitz egitea"

JOEY ALBERT



Izatez, filipinarra da Joey Albert (Manila, 1963), baina bizitzaren erdia baino gehiago darama jaioteritik kanpo, eta bost urte daramatza Azkoitian bizitzen. 24 urterekin erabaki zuen Filipinak utzi eta Madrilera bizitzera joatea, han bizi baitzen arrebetako bat. "Arrebak enpresa bat sortu zuen Madrilen, eta hara joango al nintzen galdetu zidan. Ez nuen uste urte askotarako joango nintzenik, baina bizimodua egin nuen han, eta 29 urte igaro nituen han azkenean". Ia hiru hamarkada Madrilen bizi ondoren, bizilekua Azkoitian zer dela-eta topatu zuen galdetu dezake batek baino gehiagok, eta horrek ere badu bere azalpena: "Bikotea Sopelakoa [Bizkaia] dut, eta duela hamasei urte baserri bat erosi genuen Azkoitian, Madariaga auzoan. Gure asmoa zen Euskal Herrira

bizitzera etortzea, baina urteak aurrera zihoazen, harik eta baserrian obra egin eta Azkoitira etortzea erabaki genuen arte". Alberten esanetan, Filipinan "ohikoa" da beste herrialde batera joatea bizitzera, eta horren adibide da bere istorioa.

Horrenbeste urte Europan bizi ondoren, ondo baino hobeto ezagutzen du bertako bizimodua Albertek: "Esan dezaket nire izaeraren zati bat asiarra dela, eta bestea europarra". Ildo horretan, Europako eta Asiako kulturaren artean desberdintasun handia dagoela sumatu du Azkoitiko bizilagunak. "Han, familiaren kontzeptua bestelakoa da; garrantzia handiagoa du. Seme-alabek uste dute beraiei dagokiela adinekoak diren gurasoak zaintzea. Ez da normala, esaterako, adinekoak egoitzetara joatea".

Bere jaioterrian, bestalde, agerikoak egiten zaizkio klaseei lotutako arrakalak ere. "Manilan, esaterako, jende pobre asko dago, baita aberatsak ere. Europara etorri nintzenean, arreta deitu zidan garraioaren erabilerak; hemen, edonork erabiltzen du garraio publikoa, eta Filipinetan, soilik pobreek erabiltzen dute. Gainerakoak autoz mugitzen dira".

Azkoitiko bizimodura "ondo" egokitu dela dio Albertek, eta Espainiara bizitzera joan zenenean gaztelania ikasi zuen moduan, hemen euskara ikasten ari da duela hiru urtetatik. Hain zuzen ere, euskaraz kontatu du herrian daraman bizimodua: "Mendian bizi gara, ez gara kalera asko ateratzen. Gainera, tabernetan jende askok erre egiten du, eta kostatu egiten zait hori ulertzea". Atzerritarrek euskara jakiteak integrazioan lagundu egiten duela azpimarratu du Azkoitiko bizilagunak. "Jendeari gustatu egiten zaio euskaraz hitz egitea". Dena den, zera uste du etorkinei egiten zaien harreraz: "Ni oso ondo hartu naute, baina pakistandarra edo marokoarra izango banintz, agian nire esperientzia ez zen bera izango. Jendeari ez zaio gustatzen itxura oso desberdina duen jendea".

"Azkoitian jakin dut etorkin izatea zer den"

MICHELE ABREGO



Mexikar "petoa" da Michele Abrego (Mexiko Hiria, 1978), baina 2019az geroztik Azkoitian bizi da. Azkoitiar baten bikote egin zen Mexikon, hura ere han bizi zenean. "Ez nuen ideiarik herriari buruz. Duela bost urteko Gabonetan Azkoitira gonbidatu ninduen, eta orduan ezagutu nuen herria. Azkoitian paseoan genbiltzan batean, Azkoitian bizitzen bikoteak imajinatzen al nintzen galdetu zidan bikoteak. Herri oso polita dela erantzun nion, natura gertu duelako, nire jaioterrian ez bezala". Asmo handirik gabeko galdera hura errealitate bihurtu zen duela bi urte. Izan ere, Mexiko Hirian bizi zuten "segurtasun ezaren eta indarkeriaren" ondorioz, bikoteak hiri hori utzi zuen. Orduan hasi zen Abregoren "abentura".

Mexikarrak urtebete behar izan zuen hango bizitza agurtzeko, "zirkulu guztiak ixteko", eta adierazi du Azkoitian jakin duela zer den "etorkin" izatea. "Erorikoak arindu ditzakeen sarrerik ez duzu hemen: lagunak, familia, lana... Hori guztia falta duzu". Hark adierazi duenez, gainditu beharreko "erronka ugari" izan zituen Azkoitira etorri zenean, eta ondo gogoan ditu aurreneko asteetan egin beharreko lanak: "Iritsi bezain pronto, paper guztiak legez jarri behar izan nituen, eta abokatu bat gomendatu ziguten horretarako. Bikoteak esana zidan, nire herrialdean ez bezala, hemen abokatuek ez dutela iruzurrik egiten, baina niri gertatu egin zitzaidan; guztia gaizki egin zuen.

Horrez gain, Azkoitia Euskal Herri "barrenean" zegoela entzuna zuen, eta horrek

zentzua hartu zuen herrira bizitzera etorri zenean. "Jabetu nintzen euskara jakitea oso garrantzitsua dela, bertakoek komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza delako. Gainera, Mexikon hango hizkuntzak galtzen ari dira. berreskuratzear. Nahiago nukeen Mexikon nahuatl hizkuntza ikasi izan banu, han baitago nire jatorria, eta modu horretan, nire kultura ere hobeto ulertuko nukeelako".

Batek baino gehiagok pentsa dezake Mexikoren eta Euskal Herriaren artean kontraste handirik ez dagoela. Abregok, ordea, uste baino gehiagorekin egin du topo: "Mexikon, ez dago kaleko halako girorik. Han, etxeetan elkartzen gara, eta hemen guztia kalean egiten da. Horrez gain, ikusi dut kalean kuadrilak soilik neskez edo mutilez osatuta egon ohi direla". Lagunez galdezka, adierazi du hemen ez duela lagun talderik, eta horrek tristura eragiten diola: "Sentitzen dut ez naizela ezeren parte, eta hori gogorra da". Dena den, oraintsu ezagutu du herrian bizi den beste mexikar bat, eta Azkoitiko familiaz gain, han aurkitu du sostengua: "Jabetu gara biok modu berean sentitzen garela. Ispilu bat aurkitu dut, berarengan islatzen baita nire bizipena".

"Egoitza baimena ez baduzu, bizimodu zaila izango duzu"

SAIF ULLAH



"Gure herrialdea, Pakistan, egoera onean dago, baina presidentea maltzurra da. Horregatik egiten dugu handik ihes. Presidentea hobe balitz, ez genukeen herrialdea utziko". Modu horretan hasi du bere kontakizuna Saif Ullahek (Amaraklan, Pakistan, 1988). Zortzi urte daramatza Azkoitian bizitzen, zortzi urte bizimodu berri bati aurre egin nahian. Adierazi duenez, ondo egokitu da herrira, baina zailak izan dira urteak, neketsuak. Batez ere, egoitza baimena lortzea egin zaio gogorrena; izan ere, legeztatuta egon dadin, burokrazia izugarriari egin behar izan dio aurre. "Eskakizun asko bete behar dira egoitza baimena

eskuratzeke, eta horietako bat da urtebetez lan kontratu bat edukitzea. Denbora asko eskatzen du agiria eskuratzeak, baina paperak ez badituzu, bizimodu zaila izango duzu. Izan ere, egoitza baimenak eskubideak ahalbidetzen dizkizu". Ullahek hiru urte behar izan zituen egoitza baimena lortzeko, eta bitarte horretan, Azkoitian bizi den anaiak lagundu zion etorri berriari. "Hemen, aitatzat dut anaia nagusia", adierazi du Ullahek.

Hain zuzen ere, anaia Azkoitian zuelako etorri zen herrira, aurretik Grezian bizi osten. "Pakistandarrak Europatik itzultzen zirenean, markako arrokekin etortzen zirela ikusten genuen. Uste

genuen European diru asko irabazi ahal izango genuela". Baina, ohartarazi du: "Bizitza oso garestia da hemen, batez ere etorri berrientzat. Ondoan seniderik ez baduzu, gainera, are gogorragoa izango da".

Uste baino "konplexuagoa" egin zaio Azkoitiko bizimodua, baina era berean, herrian ondo hartu dutela adierazi du: "Inoiz ez naute baztertu atzerritarra izateagatik". Duela hiru urtetatik, Helduen Eskola Publikoan gaztelania zein euskara ikasten dihardu, eta batez ere, azken hizkuntza hori hitz egiten jakiteak integrazioan lagundu diola uste du hark. Hala ere, agerikoa da Ullahek herrimina. "Pakistanera bisitan joaten naizenean, oso pozik egoten naiz, baina handik itzuli behar izateak asko tristetzen nau".

Azkoitiko bizilagunaren hitzetan, Pakistanen "bizimodu lasaiagoa" dute, eta familiek "harreman estua" izan ohi dute beren artean. Haren nahia da, beraz, senideak berriz Pakistanen elkartzea. "Herrialdearen egoera hobetzen denean, jaioterrira itzuliko naiz. Txikitako lagunak han ditut, baita familia ere. Han daude nire sustraiak".

"Gure bizitza Azkoitian dago"

ANA ETA MARIA SAMARDZIC



"Gure elkarrizketa Maxixatzenen argitaratzen denean jakingo dute askok izatez bosniarrak garela", diote Ana (Sarajevo, 1999) eta Maria (Sarajevo, 2002) Samardzic ahizpek. Izan ere, biek ala biek azkoitiartzat dute beren burua, ia bizitza osoa bertan daramatelako.

Bi ahizpak 7 eta 4 urterekin etorri ziren, hurrenez hurren, Bosniako hiriburutik Azkoitira bizitzera. Izan ere, beren aita urtebete lehenagotik bizi zen Azkoitian, eta ondoren etorri zen haren familia: "Izeba-osabak duela 30 urtetik bizi dira hemen, eta osabak aitari lana aurkitu zion herrian". Bosniako bizimoduaren "oroitzapen gutxi" dute ahizpek, baina ondo gogoan dute eskuartean zer zuten herria utzi zutenean: bi maleta eta motxila bana. "Gogoratzen

naiz amak esan zigula: 'Beste herrialde batera joan behar dugu bizitzera, eta aukeratu itzazue hara eramateko jostailu batzuk'. Hartu nuen pampina batekin akordatzen naiz, baita motxila berde batekin ere", dio Anak. Ordura arteko bizitzaren zati bat soinean hartuta, Euskal Herrira egin zuten bidaia hartaz ere gogoratzen dira: "Amarekin egin genuen bidaia. Hura ezagututa, pentsatzen dut oso urduri egongo zela. Hegazkineko txikienak gu izango ginen, eta marrazteko zerbait eman ziguten", adierazi du ahizpa gazteenak.

Mariak azaldu duenez, familia hasieratik ondo integratu zen herrian. "Amari, hasieran, gehiago kostatu zitzaion, hizkuntza berri bat ikasi behar zuelako. Dena

den, ez da gauza bera gurasoen adinarekin emigratzea edo umea zarela egitea; gu, bi ahizpok, gehiago integratu gara herrian.

Gainera, zortea izan dugu, lagun onak suertatu zaizkigulako". Bi gazteek umetatik ikasi dute euskara ikastetxeetan, eta herriko beste edonork bezala menperatzen dute hizkuntza. Gainera, euskara, gaztelania eta ingelesa ez ezik, serbiera ere badakite. "Etxean, bion artean euskaraz hitz egiten dugu, baina gurasoekin serbieraz, hizkuntza hori ere ez dezagun ahatz. Gainera, hango familiarekin komunikatzeko balio digu". Adierazi dutenez, Bosniako ohiturek zein ospakizunek presente egoten jarraitzen dute beren etxean, eta aldiro, han dituzten senideak bisitatzera ere joaten da familia. Jaioterriari dagokionez, berriz, zera diote: "Oro har, ez dago kontraste handirik bi herrialdeen artean, baina antzematen da, esaterako, hemengo bizi maila hangoa baino altuagoa dela".

Bi ahizpek adierazi dutenez, beren identitatearen zatirik handiena Azkoitian dago, bertan hazi eta bizi direlako. "Gurasoak ziur daude jubilatzen direnean jaioterrira itzuliko direla, baina gu ez; gure bizitza hemen dago". ■

Zurkaitzak



IORITZ GONZALEZ

Orain ez dela asko irakurri nuen aita-seme batzuek egin zuten Lazkao Txikiren margolan bati buruzko albistea. Azpian honako esaldi hau zuen: "Martxa honetan aurki erdaraz hitz egingo dugu, euskaraz ari garelakoan". Badirudi ez zebilela guztiz oker, bere esana zentzu gehiago hartzen ari dela urteen poderioz.

Agian, neure irudipena izan daiteke, baina azken ikerketen arabera, eskoletan, kalean zein arnasguneetan euskararen erabilera jaisten ari da, bereziki gazteen artean. Lehenengo hausnarketa, beraz, nahitaezkoa bezain zentzuzkoa da: zeintzuk izan daitezke arrazoiak? Seguraski, kausa bat baino gehiago daude, eta aditua izan ez arren, azken urteetan jasaten ari garen ohitura digitalek eragina dutela esango nuke. Bizitzak gero eta digitalagoak dira, kontsumo ohiturak guztiz aldatu dira; Hego Euskal Herriko euskal hiztunen erdiak plataforma digitalerako sarbidea du. Baina hausnartu al dugu horrek gure hizkuntzan izan dezakeen eraginaz?

Adituen arabera, pantailetan euskararen presentzia sinbolikoa da. Adibidez, euskaldunon %47k *streaming* bidezko plataformak kontsumitzen ditugu, eta 20-24 urtekoen artean, %75ak. Baina plataforma horietan zenbat film daude euskaraz? Netflixen, hiru; Disney Plusen eta HBO Maxen, bat ere ez; eta Amazon Prime Videon, bi. Telesailik euskaraz ezin da ikusi horietan. Ondorioa beraz, argia da: gazteen erreferente ia guztiak erdaldunak dira.

Badirudi gero eta jende gehiagok dakiela euskaraz, baina esparru digitala eta erabilera beste kontu bat da. "Nola soinu, hala dantza", esan ohi dute, eta gazteei digitalki euskaraz sozializatzeko aukerarik eman ezean, erabilera erasateko arriskua larria dela dirudi.

Denbora asko ez dela, gazteentzako ikus-entzunezko eduki arrakastatsuenak euskarara bikoiztuta egon ohi ziren, euskara informala zabalduz. Esaterako, *Dragoi bola* telesailen hitanoz egiten zuten, eta telesailak arrakasta kontuan izanik, belaunaldi guzti batek erreferentzia euskaldunak izan zituen. Egun, jakina da guztia euskaraz kontsumitzea ezinezkoa dela, baina nahikoa egiten ari ote gara gazteek erreferente euskaldunak izan ditzaten? Aditu batek baino gehiagok dio jada belaunaldi guzti baten hizkuntza ohiturengan eragin zuzena izaten ari dela erabilerari dagokionez.

Azkenaldian, badirudi gaia garrantzia hartzen ari dela, gizarteko hainbat eragilek bultzatuta. Estatuko aurrekontuetan ere eztabaida piztu da, alderdi katalanek gaia mahairatu ondoren. Euskal Herrian ere hainbat ekimen ari dira sortzen gaiarekin kezkatutik, eta jada gaia Eusko Legebiltzarrean hizketagai izan da, Pantailak Euskaraz herri ekimenak bultzatuta, besteak beste. Espero dezagun berandu baino lehen horrelako ekimenek behar duten bultzada jaso eta gure hizkuntza zurkaizteko neurriak ezarriko dituztela, aldi joana ez baita itzultzen. ■■■

**ADITUEN ARABERA,
PANTAILETAN
EUSKARAREN
PRESENTZIA
SINBOLIKOA DA**

OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO



MAXIKATZEN

UHL

UROLA KOSTAKO
HITZA

U

UZTARRIA

ZH

ZARAUZKO
HITZA

"Itzulpen denak dira xeheki egin beharrekoak"

MIRENTXU LARRAÑAGA SUESKUN ITZULTZAILEA ETA ZUZENTZAILEA

Ikasketak bukatuta, etxean bere kasa hasi zen itzultzaile lanean Mirentxu Larrañaga Sueskun (Azkoitia, 1966). Itzultzaile aritzeak berarekin dakar zuzentzaile lana, haren hitzetan, "itzultzaileak bere burua etengabe zuzendu eta orraztu behar duelako". Egun, *Berria* egunkariaren Euskara taldeko itzultzaile eta zuzentzaileetako bat da.

Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga.**

Azaroaren erdialdean aurkeztu zuten Nancy Fraser pentsalari feminista estatubatuarren artikuluak biltzen dituen *Kapitalaren lantegi ezkutua: mapa bat ezkerrentzat* saiakera liburua euskarara ekarrita.

Maialen Berasategi Catalanek, Danele Sarriugarte Mochalesek, Irene Arrarats Lizeagak eta Mirentxu Larrañaga Sueskunek egin dute Susa argitaletxearen Lisipe bildumako lan berria; azkoitiarrak bildumako bi artikulu itzuli ditu, biak zaintza krisiarekin lotutakoak.

Askotariko testuak dauzka itzulita eta argitaratuta, eta, egun, *Berria*-ren Euskara taldean ari da lanean itzultzaile eta zuzentzaile. Urte asko dira Azkoititik kanpo bizi dela, baina herriarekiko kate hori ez du inoiz eten. "Nahiz eta herritik kanpo bizi, aurrena Etxe Beltzen eta gero Torre Zurin erakusketa zaintzaile egin nuen lan urte askoan. Asteburuetako lana zen hori, eta nire itzultzaile lanarekin bateragarria". Horrez gain, gurasoak Azkoitian izanda, sarri etortzen da herrira. "Orain ama falta zaigu, baina inoiz ez dut eten herriarekiko lotura".

Euskal Filologia eta Itzulpengintzako Masterra ikasi zenituen. Zergatik ikasketa horiek?

Karrera bat aukeratu behar genuen garaira iritsi ginenean, nik zalantza asko izan nituen. Berez, Ingeles Filologia egingo nukeen gustura, baina ikasketa horien fakultatea Gasteizen zegoen, eta urruti zegoela iruditzen zitzaidan orduan. Eskurago nuen Donostiara joatea, eta Euskal Filologia aukeratu nuen. Nolabait, baina, hizkuntzaren batekin lotura zeukan zerbaite ikasi nahi nuen. Orain

pentsatzen jarrita, orduan ez nuen hain kontzienteki aukeratu. Ondoren, Itzulpengintzako Masterra egin nuen, eta hori bai izan zela beren-beregi aukeratutakoa.

Euskal Filologia bukatu orduko, Loiolako Ikastolan –nik ikasi nuen ikastetxean bertan–, irakasle izateko lanpostu bat sortu zen, eta hura eskaini zidaten. Baina gurasoei disgustu ederra eman, eta uko egin nion. Justu garai hartan atera zen Itzulpengintzako Masterreko aukera, eta ezkutuan izena eman, azterketa egin, onartua izan eta hura ikastera joan nintzen. Anaiak ere lagundu zidan etxean giroa pixka bat lasaitzen; izan ere, ikasketak bukatu eta lanpostu bati uko egin eta ikastera joatea... Baina ez nuen neure burua irakasle ikusten, eskolak banaka-eta eman izan ditut, baina niretzat erronka handia da egunero ikasle talde baten aurrean jartzea.

Askotariko testuak itzuli dituzu: ikus-entzunezkoetarako gidoiak, testu administratiboak, literarioak... Zer alde dago lan batetik bestera?

Ikus-entzunezkoak, hitzak esaten duen moduan, ikusi eta entzun egin behar dira. Guk zorte handia izan genuen, horretan jardun genuen garaian, gidoiak bideoekin batera ematen zizkiguten. Bestela, gidoirik ez badaukazu, ikusi eta entzuten duzun hori transkribatu egin behar da lehenengo, eta, gero, bikoizleak esateko moduan itzuli eta egokitu beharra dago. Administrazio testuak ere itzuli izan ditut, baina horiek egitura jakin batzuk dauzkate, eta oso estua da. Berez, itzulpen guztiak dira xeheki egin beharrekoak, testuak esaten duen hori esan behar baita, eta ez besterik; ahal den hurbilen baina behar bezain urrunen ibili behar da, beti oreka bat lortzeko.



Itzulpen on bat egiteko zer behar da? Bi hizkuntzak ondo menperatzea, jatorrizko testuaren nolakotasunak zeresana dauka...

Lehenengo eta behin, itzulpen on bat egiteko, baldintza duinak eta arrazoizko epeak eduki behar dira; eta horiek ez dira askotan betetzen. Ondorioz, ahal den moduan eta ahalik eta ondoena egiten saiatzen gara. Dena den, egia da baduela zerikusia jatorrizko testua nola datorren; oinarria ona baldin bada, askoz errazagoa da handik ateratzen den testu itzulia ere on samarra izatekoa. Xede hizkuntza eta sorburu hizkuntza ondo menderatzeak ez du zertan esan nahi itzulpena ona izango denik, eta alderantziz, biak ez menderatuta ere, ezin liteke esan itzulitako testua ona izan ez litekeenik. Itzulpen ona pixka bat testuinguruaren arabera da, testua nolakoa den, zenbateraino jaso duzun mezua, zure hizkuntza gaitasuna nolakoa den eta zenbaterainoko baliabideak dituzun landuak.

Zuengandik ere zerbait jarriko duzue itzulpenetan, ezta?

Bueno, esaten da testua ez dela zurea, idatzi duenarena dela. Baina, bueno, uste dut beti itzurtzen edo isurtzen dela zerbait zeuretik ere. Ez da, berez, jatorrizkoa zertan hobetu; esan nahi izan den hori esanarazten saiatu behar duzu itzulitako horretan ere.

Era askotako liburuak itzuli izan dituzu. Idazlea bera ezagutzeak edo haren beste lan batzuk ezagutzeak ba al dauka garrantzirik?

Niri iruditzen zait horrek baduela bere garrantzia, baina ez da obsesionatu behar. Behin autore bat gustatu izanez gero, batzuek badaukagu horrelako joera bat haren inguruabarrak jakiteko, zer beste lan egin dituen... Niri neuri aberasgarria zait horren guztiaren berri izatea eta egile beraren beste lan batzuk irakurtzea. Kasu batzuetan, baina, ezinezkoa da; idazle batzuk oso oparoak dira, eta, nahita ere, ez daukazu haiek idatzitako dena irakurtzeko astirik. Egile horrek berak lan asko idatzi baditu, estilo desberdinak lantzen ditu, eta, itzulitako testu horretan, inportantea da idazle horren ahotsa-edo ez aldatzea, betiere saiatuz estiloa, edukia, mamia eta ahal den dena euskarara ekartzen.

Obsesio hori zein idazlerekin daukazu zuk?

Neuk bakarka itzulitako eta argitaratutako lehen liburu literarioa Dorothy Parkerren *Hona hemen gu biok* [2005] izan zen. Neuk aukeratutakoa izan zen, eta kuttuna dut. Hala ere, kuttunekin ere ez da obsesionatu behar. Egilea non ibilia den jakiteko gogoia ere izaten da; uste dut hori itzultzaile guztion ajea dela. Aitortu behar dut ni joan nintzela Parker ibili zen tokietara, eta egin nuen horrelako

barrabaskeria txiki bat ere: nik itzulitakoaren pare bat ale hartu, eta New Yorkeko Udal Liburutegian sartzea eta jatorrizkoaren ondoan jartzea lortu nuen. Niretzat, ondoan jartzekoa zen.

Adibidez, liburu dendetan zergatik ez dira jatorrizko lanak eta itzulitakoak elkarren ondoan jartzen? Hizkuntza batera eta bestera itzulitakoak elkarren ondoan jarrita, aukera ematen zaio irakurleari nahi duena aukeratzeko, eta ikusgarritasun handiagoa ematen zaie euskarazko lanei.

Parkerri lotuta, haren poesia batzuk itzultzeko proposamena ere jaso dut, eta, igual, horretan ere saiatuko naiz; lan zaila iruditzen zait, baina.

Gaur egun *Berria*-ko zuzentzaile eta itzultzaileetako bat zara. Nolatan hasi zinen *Berria*-n?

Itzulpengintzako Masterra bukatutakoan, praktikak Gipuzkoako Foru Aldundian egin nituen, eta han hartu genion tamaina administrazio testuak itzultzeari. Gero, Bergarako Udalak arau subsidiarioak itzultzeko lehiaketa atera zuen, eta hara aurkeztu, eta lan hura lortu nuen; etxetik egiteko moduko lana zen, gainera. Gero, aukera bat sortu zitzaidan ikus-entzunezkoen itzulpenen inguruko ikastaro bat egiteko, eta K2000 enpresarentzako marrazki bizidunak, dokumentalak, pelikulak... itzultzen hasi nintzen, eta gustura bizi nintzen. Baina urte batzuk pasatu ziren, eta lana gutxitzen hasi zen. Orduan, egunkarian itzultzaile bat behar zutela zioen iragarkia ikusi nuen, eta 2007. urtetik ari naiz Euskara taldeko itzultzaile eta zuzentzaile. Oraintxe bertan, bederatzi lagun gaude taldean; ematen du asko dela, baina gaur egungo aurrerapenekin eta guztiekin ere ez digu denerako ematen: egunkaria, webgunea, bideoetako azpidatziak, marketinekoen idatziak, lanak, zenbait kolaboratzailearen lanen itzulpenak, aholkularitza lana, kontsultak erantzun, kanporako nahiz barrurako ikastaroak...

Zuzentzaile gisa, akuilua askotan atera behar izaten al duzue?

Jendeak ez dakit zer irudi daukan zuzentzaileez; berez, *zuzentzaile* hitzak badauka pixka bat konnotazio txarra edo. Guk beti diogu ez garela aritzen haginlariak bagina bezala momentu oro gauza ustelak ateratzen, gure asmoa dela testuaren alde jardutea; ahal bada, hobetzea, orraztea... Guk beti hobe beharrez jarduten dugu, informazioa ahalik eta txukunena azaltzeko eta irakurleei erakargarri egiteko; eta beste hainbeste testuak itzultzen ere.



**"ESAN NAHI IZAN DEN HORI
ESANARAZTEN SAIATU BEHAR DUZU
ITZULITAKO HORRETAN ERE"**

**"EGILEA NON IBILIA DEN JAKITEKO
GOGOA ERE IZATEN DA; USTE DUT
HORI ITZULTZAILEON AJEA DELA"**

**"EIZIE ELKARTEA SEKULAKO ABAROA
DA ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE ETA
INTERPRETEENTZAT"**

Berrikuntzak eta garapen teknologikoak zuen lanean ere eragingo zuen onerako eta txarrerako, ezta?

Aurrerabideak izan dira, noski. Esaterako, hizkuntza baliabide guztiak sarean eta eskura edukitzea ezin da inola ere ordaindu. Beste kontu batzuetan, baina, aurreratu beharraren aurreratu beharraz, atzera egiten da; ez dakit zer erantsi diotela aplikazioen bati, eta gure lanerako ez dator ondo, ez digulako uzten koma bat nahi dugun eran jartzen. Beraz, batzuetan, lehengo bertsioarekin-eta gelditu behar izaten dugu. Hala ere, normalean, berrikuntzak ongi datoz.

Lanerako erreminta garrantzitsu bat *Berria*-ren Estilo Liburua da.

Sekulako altxorra da hori. Hizkuntza aldetik, direnak eta ez direnak daude Estilo Liburuan; estiloari berari dagozkion aholkuak ematen dira, baita kanpoko galderak erantzuten ere. Egunero elikatzen dugun lanabes ezinbestekoa da Estilo Liburua.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko (EIZIE) kide zara. Zein da elkarte horren egitekoa?

Elkarte hori sekulako abaroa da itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteentzat; nik ez daukat hori azaltzeko bestelako hitzik. Horrek dauzka itzultzaileontzako, zuzentzaileontzako eta interpreteentzako hizkuntza baliabide guztiak, jardunerako gidalerroak, ikastaroak, aholkularitza... Sekulako lana egiten dute, eta beren webgunean sartu eta ikusi besterik ez dago. Elkarte horren zeregina oso funtsezkoa da, eta gero eta hobeto ari dira.

Zer da zuretzat euskara?

Euskara dut bularretik edoskitako mintzoa, ama hizkuntza, edo ama-aiten hizkuntza. Gure etxean euskarari garrantzi handia eman izan zaio. Gurean aita beti izan da gehiago ikasi duena; gaztelaniaz ikasi zuen berak, eta amak baino aukera handiagoa izan zuen ikasteko. Elkar ezagutu zutenean, baina, elkarren arteko harremanak-eta gutun bidez egin zituzten, amak aitari euskaraz idazten zion, eta aitak amari, gaztelaniaz. Uste dut hala izango zela igual aitak bere burua jasoago ikusten zuelako gaztelaniaz eginda, edota ohituta zegoelako dena gaztelaniaz ikasten. Handik urte batzuetara, gure aita Azkoitiko Udalean zinegotzi ibili zenean, bera izan zen aurrenetakoa aktak euskaraz jasoarazten zituena, eta Ikastolaren mugimenduan ere asko sartuta ibili zen. Niretzat, berriz, gaur egun, euskara da bizibidea, bizimoldea, bizilaguna, bizigarria, bizipoza, eta mundua ikusteko eta munduan egoteko modu bat. Alde horretatik, zorte handia izan dudala sentitzen dut. ■■■■

 **Florea**
SALESTAR KASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
*Zatoz, ezagutu gaitzazu
bestelak zurekin duzatearen
giltze konfiantza dagoelako*

komatz s/g-AZKOITIA
943-85 32 43 • florea@florea.com
www.florea.com

ZERBER
BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDI GUZTIAKO GAIAK AJURKITU
DITUZU GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA,
MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA
ETA ABARREKO TRESNERIA. HALA NOLA, TORLOJUAK,
ERRORDAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA, 39 - 20730 AZKOITIA - 938 35 01 25
www.ferreteriazerber.com

zurt
OGITATEROKAK
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
ENTZALAKAK
PAZDAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TELUPAZA HANDIA ZUZENEKI EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ARTISAU PIZDAK
ENTZALAKAK
PINTURAK
PLATER KONBINATUAK
RADIOAK
OGITATEROKAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMU ETA ANGI EKID
PAREGABEAK
LARIUNGATETAN 30 DI ARTERRENTA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

Naike
TATTOO STUDIO


JULIAN ELORZA 5 AZPETA
672 17 88 51

NON DAGO ZAKELMARI?



Azaroko Maxixatzen aldizkarian

Zakelmari non ezkatuta zegoen asmatu behar zen: 33. orrialdean zegoen ezkatututa. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Esther Sodupe** bazkideari egokitu zaio Herrixen merkatari elkarteak emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna abenduaren 14a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



Komertzixo
txikixe
herrixen
esentzixe



GUKA



IMANOL LAZKANO ETA JUANITO DORRONSORO

**BI BIZITZA
KONPAS BEREAN**



Euskararen plaza gara,
herriaren irudia eta
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

ENTZUN ETA IKASI



ANDONI ELDUAIEN

Hizkuntzarekin jolas egitea da bertsolaritza, kantua eta hitza uztartuz lortzen den emaitza da bertsoa; bat-bateko sorkuntza da. Tradizioa, literatura, folklorea... Hori guztia ere bada bertsolaritza, baina baita komunikazioa ere. Bertsolaritza entzuleekin nahiz inprobisatzaileekin –bertsolariak– komunikatzea da. Bertsorik ez da sortzen komunikaziorik ez badago, eta kazetariok artikulatuak idazteko jarraitu behar izaten ditugun egiturak bezala, bertsolariak ere hainbat baldintza bete behar izaten ditu bere mezua bertso bihurtzeko; izan ere, bertsolaritza komunikazio neurtua, errimatua eta kantatua da. Hizkuntza zaila da kanpotik bakarrik ezagutzen dugunontzat, baina, era berean, gozagarria. Zer ez du bertsolaritzak?

Euskarak une zailak igaro behar izan ditu historian zehar, baina, halere, euskaldunok mendez

mende lortu dugu aurrera egitea. Gure-gureak diren gauzak kentzen saiatu diren une bakoitzean ere, jakin dugu horiei eusten; finean, zailtasunen aurrean egokitzen asmatu du herri honek. Euskarak bezala, ordea, bertsolaritzak ere sasoi latzak bizi behar izan zituen, besteren artean nabarmena izan zen Francoren diktadura garaia. Bertsoa ezkutuan egon zen urte haietan guztietan, baina, ondoren, jakin zuen berriz ere burua atera eta plazara iriteten. Askoren artean, Imanol Lazkanori eta Juanito Dorronsorori esker. Ezinbesteko tresna izan da bertsoa Euskal Herriak bizirik iraun dezan.

Egun ezagutzen dugun bertsolaritza ulertzeko, ezinbestekoak izan dira azpeitiarra, ataundarra eta bertso munduko beste zenbait lagun. Diktadura garaian zenbaitek ezkutuan edo preso zirela egindako lanak biziberritu zuen bertsoa. Eta gero, baserritik kalera eraman

zuten bertsoa; bete-betean asmatu zuten orduan, hala lortu baitzen bertsolaritzari bizia ematea. Orain, hamarkada batzuen ondoren, arnasa sakon eta lasai hartzen du bertsoaren munduak.

XXI. mende honetan bizi garren euskal herritarrok aurreko euskaldunek egindako lanen emaitzak besterik ez ditugu jaso. Asko zor diegu lagun horiei guztiei. Hala eta guztiz, badut kezka bat neure baitan. Nola eman behar diegu guk etorkizuneko euskaldunei aurrekoek guri eskainitako guztia?

Inoiz baino garbiago dut idatzizko hizkuntzak baino indar handiagoa izango duela gero ere ahozkoak, eta horretarako, bertsoa izango dela tresnarik baliagarrienetakoa. Entzunez ikasten da gehien; beraz, jarraitagun belarriak zut Lazkano eta Dorronsoro bezalako pertsonen aurrean. Nire txaloak eta miresmena zuentzat.

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 4.700 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



BERTSOAZ PUNTUKA

Imanol Lazkano eta Juanito Dorronsoro

Bizitzaren zati handi bat igaro dute bertsoa lantzen Imanol Lazkanok eta Juanito Dorronsorok. Lanketa gauzatzeko, baina, bi bide desbedin hartu zituzten azpeitiarrak eta Zumaiaiko bizilagunak: plazan eta agertoki gainean ibili da urte askoan Lazkano, eta doinuak biltzen Dorronsoro. Finean, hitzak eta doinuak uztartzea da bertsoa. Biek parte hartu zuten bertsolaritzaren etorkizunaz eztabaidatzeko saioetan, eta pertsona garrantzitsuak izan dira bertsolaritza kaletartzeko prozesuan.

Testua: **Andoni Elduaie Soraluze**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Bertsolaritza inork baino hobeto ezagutzen dute Imanol Lazkanok (Azpeitia, 1936) eta Juanito Dorronsorok (Ataun, 1936), eta, era berean, biak ezinbestekoak dira bertsolaritza ezagutzeko. Hamarkadaz hamarkada, bertsoaren alde lan asko egin du bikoteak. Euskal Herriko plaza gehienak ezagutzen ditu Lazkanok, eta badaki txapelketetan parte hartzea zer den; izan ere, Gipuzkoako Txapelketako finalista izan zen 1962an eta 1964an, baita Euskal Herrikoan ere, 1982an eta 1989an. Gainera, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria izan zen azpeitiarra 1987tik 2005era arte. Dorronsoro, berriz, ikastolen mugimenduaren sortzaileetako bat da, eta gerora, bertsolaritza hezikuntzan txertatzeko ahalegin handia egin zuen. Bertsoari lotutako material pedagogikoa sortu zuen eskoletarako, eta lanketa berezia egin zuen doinuak biltzen; 3.000 melodia baino

gehiagoko doinutegi bat bada, besteak beste, Dorronsororen lanari esker.

Lazkano eta Dorronsoro, aspalditik ezagutzen duzue elkar. Gogoan duzue non ezagutu zineten?

Imanol Lazkano: Oker ez banago, 60ko udazkenean, Ordiziako [Gipuzkoa] feria egunean egin zen txapelketan ezagutu genuen elkar. Soldaduskatik itzuli berria nintzen orduan, eta txapelketan parte hartu nuen.

Juanito Dorronsoro: 1959an egin nintzen apaiz, eta Gaintzan [Gipuzkoa] egon nintzen urte batzuetan. Herri hartan hasi nintzen bertsolaritzara hurbiltzen. Ordizian bertso jaialdia zegoenez, motoa hartu eta hara joan nintzen. Txapelketa hartan ezagutu nuen Lazkano.

Gogoan al duzue noiz sortu zen bertsoaren eta zuon arteko harremana?

I.L.: Gogoan dut, umea nintzenean, aitonak koplak abesten zituela. Hizketan hasi nintzene-



rako mozkortu nintzen bertsoarekin. Beti izan dut bertsoa buruan, eta oraindik ere hor jarraitzen du korapiloak. Bertsoarekin amets egin, bertsoarekin jolastu eta bertsoaren munduan sartu nahi nuen. Zortea izan nuen, inguruan giro hori baibaitzegoen Agirre eta Lizaso bertsolariekin. Horien inguruan hasi nintzen, pixkanaka, plaza batzuk egiten.

J.D.: Ataundarra naiz, eta han ez zen bertsozaletasun handirik. Lizaso inoiz ikusi nuen festetan, baita Uztapide ere, baina Gaintza Ataun baino bertsozaleagoa zen. Apaiz egin berria nintzen, eta Gaintzako San Migel jaietan bertso saioa izan ohi zen ekintza garrantzitsuena. Baxarri eta Uztapide joan ohi ziren, Lasarte ere bai aldian behin, eta udaletxeko balkoitik jarduten zuten kantuan.

Gero, bertsoari alea ematea erabaki zenuten. Erraza izan al zen hastapen sasoia?

I.L.: Bertsoa zaila da. Hartu nuen muturreko bakoitzarekin izutu izan banintz, aspaldi lagako niokeen. Bertsoa neurritz kanpoko zerbait da, ordea. Anormal puntua ere behar da horrenbeste aldiz bertsotan hasi, jendaurrean garrantz bukatu eta mundu horretan murgilduta jarraitzeko. Bertsoa gure bizitzako bizio izugarri bat izan da.

J.D.: Saturrarango apaizgaitegian egon nintzen, eta kantu asko abesten genituen han. Oso lotuta daude bertsoa eta kantua, kantu asko bertsoa baitira. Boga-boga liburuxka ere ateratu genuen, eta Gipuzkoako apaizgaiok kantuak zabaltzeko saiakerak ere egin genituen gero. Bizkaiko Ikastolen Federazioak eskatuta, Saio-ka izeneko euskara liburuak ere egin nuen. Zumaian, berriz, ikastola sortu genuen, eta han abestiak zein bertsoak irakasten aritu nintzen. Kontua da ikastolak handitzen ari zirela eta ez zegoela argi zer irakatsi. Hori dela eta, oso egokia ikusi zen kantagintza eta bertsolaritza irakastea, eta mundu horretan sartu ginen. Gero, Imanolekin-eta batera, bilerak egiten hasi ginen, bertso eskolak nola sortu zitezkeen aztertzeko.

Bertso eskolak aipatu dituzue. Zergatik eman zenuten eskolak sortzeko pausoa?

I.L.: Arrasateko [Gipuzkoa] Patxi Goikoleak-eta egin zuten bertso eskolak sortzeko apustua,

eta Sarasua anaiek, Arantxa Loidik eta beste batzuek eman zuten izena eskolan. Autoa hartu eta bertso saioak entzutera eramaten zituzten gazte haiek izugarritzko maila eman zuten urte batzuk geroago. Garai batean, baserriak ziren bertso eskolak. Asteburuetan, aldiz, tabernan asko egiten zen bertsotan. Baina baserria galtzen hasia zen, eta arriskuan zegoen baserri giroa ere. Kaletartzea behar zuen bertsolaritzak, bestela, baserriarekin batera joango zatekeen hankaz gora. Horregatik zegoen eskoletan bertsolaritza irakasten hasi beharra. Amuriza kartzelan sartu zuten gero, eta espetxean zela lan ikaragarria egin zuen; alde batetik, bere burua bertsolari bezala lantzen, eta bestetik, errima liburuak egiten. Espetxetik atera zenean, ordurako sortuta zeuden eskoletara zabaldu zen Amurizaren materiala, eta horrek indar handia eman zion bertsolaritzari. Eskolei esker, jende berria sartu zen taldean, eta ideia berriak ekarri zituzten horiek. Gu bertsoekin mozkortuta geunden, baina baita Juanito bezalako bertso eskoletako jendea ere. Guzti horri esker ailegatu da bertsolaritza gaur dagoen lekura.

J.D.: Elgoibarko [Gipuzkoa] ikastolan elkartu ginen gai horiei buruz hitz egiteko. Patxi Goikolea ikastolen elkartera zuzendu zen, eta hark esan zuen eskolak zabaldu eta antolatu egin behar zirela. Eztabaida batzuk ere izan genituen, bertso eskoletan zer irakatsi behar zen erabakitzerakoan. Batzuk umeen gustuko bertsoak sortzearen alde zeuden, eta besteak, bertsolari zaharren ale onak jaso eta horiek ikastoletan irakastearen alde. Azkenean, bertso zaharrak pilotzea erabaki genuen, eta niri eman zidaten hori egiteko mandatua. Hala, Euskal Herriko bertsolari onenen bertsoen antologia batu nuen. Bete-betean murgildu nintzen bertsolaritzan, eta Bertsotan liburuak ateratu genituen Ikastolen Elkartearekin batera.

Zer da bertsoa zuentzat?

I.L.: Nire amets garrantzitsuenen gailurra izan da bertsoa, bestela ez dago horrenbeste urtean aritzerik. Bertso saio asko egin ditut, eta gozatu, oso gutxitan gozatu dut. Norberak dituen exijentziek esaten dute zer maila eman; izan ere, exijentziari begira lantzen da burua. Itzuli izan naiz etxera gehiago bertsotara joateko



"Nor bere baitan egiten den gimnasiak burua janzten laguntzen du"

"Sekulako zaratarekin erronka jotzen duen politikariak baino lan gehiago egiten dute herrietako kulturzaleek"

"Bertsoak badu halako gauza polit bat hizkuntzaren barruan, eta gu horrekin maitemendutako pertsonak gara."

Imanol Lazkano

gogorik gabe. Halere, gero, gehiagorako nahia pizten zidan barruko eraginak. Etengabeko borroka da bertsolariena; norbere buruarekin estua izan behar da, gauzak txukun eta akatsik gabe egiteko. Nor bere baitan egiten den gimnasiak burua janzten laguntzen du.

J.D.: Jolasa da; kanta eta sorkuntza den aldetik, gustagarria da niretzat bertsoa. Gero eta gehiago harritzen naiz bertsoa momentuan eta horren azkar sortzen dutela ikustearekin. Gainera, bertsoa oso baliabide ona da historia ezagutzeko. Euskal Herriak idatzitako historia gutxi du, baina oso aberatsa da kantutegietan bildu den ahozko literatura. Era berean, oso bitarteko ona da gazteak hezteko nahiz euskalduntzeko eta Euskal Herriaren etorkizuna indartzeko.

I.L.: Sufritu egin dudala esan dut lehen, baina, gozatu ere, asko gozatu dut. Euskal Herriko herri eta herrixka guztietan izan gara ia. Herri bakoitzean egon ohi dira kulturarekiko kezka duten eta horretan eragin nahi duten pertsona bat edo bi, eta horiek dira niretzat Euskal Herriaren arima, jende horrek eutsi baitio bizirik euskal kulturari. Sekulako zaratarekin erronka jotzen duen politikariak baino lan gehiago egiten dute herrietako kulturzaleek. Lan isila

egin dute, eta gainera, askotan beraien patriketako dirua gastatuz. Lagun horiek gertutik ezagutzeko aukera izan dut, eta babesa zein mimoa eman dizkirate. Ikaragarritzko zortea izan dut.

Zerk uztartzen ditu eskola eta plaza?

I.L.: Bertsokak. Bertsolaria bertsozale itsua den gisan, bertso eskoletan dabilen jendea ere bertsozalea da, nahiz eta ez sentitu bertsolaria. Bertsokak badu halako gauza polit bat hizkuntzaren barruan, eta gu horrekin maitemendutako pertsonak gara.

J.D.: Imanol eta biok elkarrekin ibili gara azken urteetan egin diren gauza garrantzitsuenetan. Sustrai-sustrai aritu gara, hala nola bertso eskolak sortzen eta bertsolarien zein bertsozaleen elkarteak sortzen. 1984ko txapelketa sortzeko ere bildu ginen.

I.L.: Bertsolari batzuk ez ginen konforme azaldu 1982ko txapelketan. 1984koa antolatu behar zela esan zutenean, Euskaltzaindiari eskaera batzuk egin genizkion, baina ez zituen onartu gure baldintzak. Izena emanda zeuden bertsolariekin elkartu ginen, eta guztiek baja eman zuten txapelketan. Euskal Herria bertsolari txapelketarik gabe gelditu zen orduan. Loiolan elkartu ginen gero, beste bilera bat egiteko. Bertsolaria antolatzeke alferra da izatez, baina alferrak jakiten du zein den gauzak ondoen antolatzen abila. Ordurako ezagutzen genituen herri bakoitzeko bertsozaleak, bagenekien zeintzuk ziren Euskal Herriko arimak, eta horien hautaketa egin genuen. Juanito zen horietako bat. Ilusio handiz hasi ginen lanean, eta emaitza bezala, oso arrakastatsua izan zen 84-85 urteetako txapelketa. Betekada batzuk-eta izan ohi ziren lehen ere, baina Donostiako Belodromoa goraino bete genuen urte hartako finalean. Guztiok bat izanik, lehen baino indar gehiago egin genuen, eta hori abiapuntu hartuta antolatu zen 87ko txapelketa.

J.D.: Bertsozale elkarte oso garrantzitsua da bertsolaritzaren etorkizunerako. Elkarteak egituratu egin du bertsolaritza, besteak beste txapelketak antolatuta eta bertso eskolak martxan jarrita. Aztertuta dute etorkizunean zer egin behar den, eta Euskal Herriko lurralde guztietan ondo finkatu da. Oso burutsu jokatu

du elkarteak. Beste alor guztietarako inbidia-garria da bertso munduan sortu den elkarte. Halako bakarra da euskal kulturaren.

Lehenago bertsolaritzaren eta egungoaren trantsizioa barru-barrutik bizi duzue. Ez dago zuek baino pertsona hoberik bertsoa zertan aldatu den esateko.

I.L.: Beti esan izan da, eta arrazoi guztiarekin, bertsolaritza herriaren ahotsa dela. Bertsolaria herriaren ahotsa bada, eta herria urtez urte aldatzen doanez, herriarekin batera joan behar dute bertsolariak, eta ahal badute, aurretik. Elkartean ikasketak zituen jendea sartu zen. Aldaketa hori nabarmena zen gizartean, eta bertsolaritzan ere derrigorrez eman beharreko pausoa izan zen. 14 urte bete arte ibili nintzen Azpeitiko Maristetan, eta, halere, bertsolari zaharragoak baino ikasiagoa sentitzen nintzen. Oso eskola gutxi zuten Lasartek, Agirrek, Liza-sok edota Uztapidek; Baxarri zen eskolatuen. Orain, berriz, azken txapelketetako finalistei begiratzea nahikoa da; finalista guztiak dira unibertsitate ikasketadunak. Horrek guztiak izugarritzko aldaketa ekarri du bertsolaritzara.

J.D.: Ez nuke lehenago eta egungo bertsolaritzaren banaketarik egingo. Gizartea etengabe ari da aldatzen, baita bertsolaritza ere, hala nola adierazteko eta kantatzeko moduak, eskolak eta entzuleak. Bertsolarien publikoa lehenago erakoa zen, baserritarrena. Orduan, bertsoa entzuten zuena baserriko jendea eta adindua zen, gazteak ez baitziren saioetara joaten. Azken finean zahartzen ari zen bertsolaritza. Esango nuke bertsolaritzak izan duen krisialdirik handienetakoa izan zela hura, eta horregatik sortu ziren bertso eskolak. Bizirik dauden euskal erakunde guztiek beti izan dute egokitzeke gaitasuna. Hori ez da gelditzen, eta ez dadila gelditu.

I.L.: Gaur bezain ondo ez da sekula egin bertsoetan; egungo perfektiorik ez da inoiz ikusi. Baina aurrerapausoa ematen den bakoitzean, zerbait puskatu egiten da hanka azpian. Esaterako, bertsoak lehenago bizitasun puntua galdu egin du. Bozgoragailurik gabe abesten zen lehen, eta horregatik, abesteko modua ere aldatu egin da; izan ere, plazan aritzeko abeslari ona izan behar zen lehen, adierazten jakin



"Beti izan dut bertsoa buruan, eta oraindik ere hor jarraitzen du korapiloak"

"Beste alor guztietarako inbidiagarria da bertso munduan sortu den elkartea"

"Bizirik dauden euskal erakunde guztiek beti izan dute egokitze gaitasuna"

Juanito Dorronsoro

behar zen; ondo eta harro kantatzeak asko esan nahi zuen orduan. Gaur ere badira ondo kantatzen dutenak, baina, oro har, desberdina zen bertsolari zaharrek zuten kantatzeko era. Gaur egun, kantaerari baino garrantzia gehiago ematen zaie beste gauza batzuei. Pikardia eta elkarri adarra jotzeko giroa galdu egin da, gizarteak berak ere galdu egin baitu umorea.

J.D.: Lehengo bertsolariak kantariagoak ziren. Plazan ez zegoen mikrofonorik eta behar-beharrezkoa zen ondo kantatzea. Are gehiago, kantua asko estimatzen zen. Azkarrago ere abesten zen lehen; orain, aldiz, patxada gehiagorekin aritzen dira.

1936an lehertu zen Espainiako gerra, eta orduan jaio zineten biok. Ondorengo urteak ez ziren inolaz ere errazak izan. Zertan eragin zuen bertsolaritzan?

I.L.: Oso urte zailak izan ziren. Baxarrik 1935ean jantzi zuen txapela, eta gero kartzelan sartu zuten. Harrezkero, baserritarren batzuk ferietan egingo zuten agian bertsotan, baina bertsolariek debekatuta izan zuten plazan kantatzea. 60ko hamarkadak aldaketa handia ekarri zuen Euskal Herrira, eta hamarkada hartan eman zuen bertsolaritzak ere kaletartzeko pauso handiena. Onerako edo txarrerako ETA ere



orduan sortu zen. Apaiztegietan eta komentuetan ibilitako gazte jendea kalera atera zenean, iraultza giroko mundua sortu zen Euskal Herrian, eta orduan hasi ginen, Azpillaga eta Lopategi buru zirela, politikaren inguruko bertsoak abesten. Kaleko jende batek ez zuen jarraitzen bertsolaritza, baina iraultza mugitu zuten gazteek ikusi zuten bertsolariok gai politikoak erabiltzen genituela. Haiek bertso munduarekin ekintzak antolatzen ere hasi ziren gero, baina bertsolari guztiek ez zuten hura onartu, gai politikoak bertsotarako ez zirela iritzita. Kritikak ere izan ziren tartean, baita kartzelan sartutako eta isunak ordaindutako bertsolariak ere. Kontua da, ordea, bertsolariak kaleko gazte jendearengana iristea lortu zuela, eta orduan kaletartu zela ordura arte horren baserritarra zen bertsolaritza. Horri guztiari esker iritsi da bertsolaritza iritsi den mailara.

J.D.: Tunel beltza izan zen sasoi hura. Francoren diktadura beldurgarriak amets bakarra zuen: Euskal Herria lur eta mapa honetatik desagitea; egurra besterik ez zen izan orduan. Idazle zein

euskaltzale askok Ipar Euskal Herrira egin behar izan zuten ihes, edo bestela, mutu geratu. Urte batzuen ondoren, eta poliki-poliki, arnasa hartzen hasi zen herria. 60ko hamarkadan aro berria hasi zen alde askoren partetik. Mitxele-na bertsolariak zioen harrigarria zela bertsolaritza horren zaharra izatea. Niri, ordea, beste zerbaitek sortzen dit misterioa: herri hau horren txikia izanda, handia da bertsoak horrenbeste urtean nola eutsi ahal izan dion ikustea.

Irudikatzen al zenuten bertsolaritza gaur dagoen puntuan?

I.L.: Inork ez zukeen sinetsiko.

J.D.: Nik ere ez nuen uste. Bertso eskolarik gabeko bertsolaririk ez dago egun.

I.L.: Sekulako maila dago. Bertsoa hitzekin jolas egitea da. Ikaragarria da orain zenbat bertsolarik erakusten duten buruan eginda daukaten ariketa. Andoni Egañak edo Maialen Lujanbiok esaten eta idazten dituzten hitz horiek, Biba Zuek! saioko aurkezleek duten hizketarako modua... Alaia Martini irratiz elkarrizketa egin diote elkarrizketara nentorrela, eta zer-nolako gaitasuna erakutsi duen gauzak esateko... Punta-puntan dabiltzan bertsolariek hitzarekin jolas egiteko gaitasun handia erakusten dute.

Bertsolariak gizartearekin batera, edo kasu batzuetan, aurrerago joan behar duela esan duzue. Nola irudikatzen duzue etorkizunean?

I.L.: Nahiz eta jende asko dabilen bertso eskolatan, nahikoa zabaldua dagoen kezka da hizkuntzaren erabilerak zenbaterainoko iraupena izango duen. Ez al da erdaraz gehiegi egiten kanpoan? Ez dakit hizkuntzaren erabilerak nolako indarra izango duen etorkizunean, baina erabilerak bizirik irauteen duen bitartean, ziur nago bertsolaritzak ere iraungo duela.

J.D.: Euskara bera galtzeko arriskua ikusten dut neuk ere. Euskarari eusten bazaio eta zeharo galtzen ez bada, etorkizun oparoa izango du bertsolaritzak. Emakumeen olatua ere hazten ari oraindik, eta uste dut hori gehiago indartzeko eta parekatzeko zeregin handia dagoela.

Epaille lanak ere egin izan dituzue. Eginkizun zaila al da besteen lana epaitzea?

I.L.: Oso-oso zaila. Gainera, munduan ez dagoela bertsoa ondo neurtuko duen inor esate-

ra ausartuko nintzateke; ezinezkoa da. Euskaldunak garen bezalakoak gara, norgehiagokarako eta apusturako grina dugu oraindik, eta txapelketek eragin handia dute. Errima aldetik ona izan daiteke bertso bat, edo egundoko arrazoia emanda, izan dezake errima akats txikiren bat besteren batek. Kasu horretan, zeri eman behar zaio balio handiagoa? Pisatzen eta neurtzen den jeneroa balitz bezala neurtzen da bertsolaria, baina bertsoa neurtezina da. Ateraldi bizi bat gusta dakioke bati, hizkuntzaren perfektzioa bigarrenari eta kantaera hirugarrenari. Nire ibilbidean bertsolari asko ezagutu ditut, baina oraindik ez ditut bi bertsolari berdin ikusi; guztiak dira desberdinak.

J.D.: Askotan izan genituen eztabaidagai txapelketak, horiek norgehiagoka bultzatzen baitzuten. Lehia ez da ona, baina orduan beharrezkoa ikusten zen. Imanol [Lazkano] bertsopaper lehiaketetako epaimahaikidea izana da askotan, eta gogoan dut behin bota zuen esaldi bat. Sarritan errepikatu izan diet bertsolari gazteei, epaimahaikide aritzen bainaiz neu ere Zumaian. Norbait urduri ikusten dudanean, Imanolek esandakoa gogorarazten diot: “Joan hadi lasai txapelketara, ondoen eginda ere, gaizki egingo duk eta”.

Gero eta emakume gehiago ari da batzen bertsolaritzara. Zer egoeratan ikusten duzue parekidetasuna bertsolaritzan?

I.L.: Beti izan dira emakume bertsolariak Euskal Herrian. Gure amonek eta amek zenbat bertso abestu ote dizkiete beraien haurrei... Elizak bertsotan jardutea mozkorren kontua zela esaten bazuen, zer esango ote zukeen emakumeak tabernan gizonezkoekin bertsotan ikusi izan balitu. Sorginak erre egin baldin bazituzten, ez dakit haiei zer egingo lieketen. Nahiz eta bertsotarako sena bazuten, emakumeek ez zuten bertsolari izaterik. Dena den, orduan ere aritzen ziren emakumeak bertso zaharrak ikasten eta etxeko haurrei kantatzen zein irakasten. Bertso eskolak martxan jarri eta emakumeak onartzen hasi zirenean, ikusi besterik ez zegoen horiek zuten maila zer-nolakoa zen. Ez zen gaitasunik ez zutela, gaizki ikusia zegoela baizik.

J.D.: Egituran zegoen emakumea zapalduta, eta hala dago oraindik ere. Zumaiko bertso



eskolan, esaterako, ez zegoen alderik nesken eta mutilen artean. Gero, ez dakit zergatik, baina mutilak hasten ziren nabarmentzen; neskak, aldiz, bazterrera gelditzen ziren. Hori gertatzen zen lehen, eta gertatu egiten da orain, nahiz eta gutxiagotan izaten den.

I.L.: Neskak tabernan bertsotan ikusteak kezka puntua sortzen zion jendeari lehen, eta bertsolariak berak ere lotsa puntua izaten zuen. Mutilak bertsotan pixka bat egiten baldin bazuen, berriz, txalotu egiten zen.

Bertso doinutegiaren aita zara Juanito. Lanketa handia dago horren atzean...

J.D.: Emazteak eta biok bakarrik dakigu hori. Ikastoletako umeek zer kantatua izan zezaten, antologia bat egiteko eskatu zidaten. Bertsotan izeneko bi bilduma egin nituen, bertso onenak jasoz. Era berean, doinuak solfeoan idatzita jasotzeko ere eskatu zidaten, eta kasete batzuk ere egin genituen Imanol Urbietarekin, abestutako doinuak jasota geldi zitezen. Musikaz asko ez dakit, baina bai horretarako adina. Gainera, bidezkoa iruditu zitzaidan neurri be-

reko doinuak elkarrekin sailkatzen hastea, hori interesatzen baitzaie gehienbat bertsolariei. Lanketa horretan ari nintzela, kantutegietan milaka doinu zeudela ikusi nuen. Ikaragarritzko lana zegoen egiteko, eta poliki-poliki hasi nintzen doinu guztiak izendatzen, askok izenik ere ez baitzuten. Guztiak biltzen, ordenatzen eta solfeorako idazten aritu nintzen. Izugarritzko lana izan zen, eta urte asko pasatu nituen horretan, ordura arte inork egin gabeko zerbait zelako. Doinutegia izena jarri nion, eta gero, bertsozale elkarteak lagunduta, Internetera eraman genuen.

I.L.: Harritzeko moduko lana du eginda Juanitok. Biziatu egin zen, bera den bezalakoa delako. Euskal Herriak badu Juanitorekiko zor bat, inoiz ordainduko ez dion zorra.

Zuk, Juanito, 2013ko Euskal Herriko Txapelketan txapela jantzi zenion Amets Arzallusi. Bertsoaren alde egindako lana aitortu zizuten orduan. Nola bizi izan zenuen une hura?

J.D.: Ilusio handia egin zidan Arzallusi txapela janzteak. Pozik eta gustura negoen, herriaren aurrean aintzat hartu nindutelako.

I.L.: Zer gutxiago! Juanitori jendaurrean txalo jo zaion une bakarra izan da. Juanitok adina lan egin duen pertsona gutxi egongo da. Ordura arte sekula ez zitzaion publikoaren aurrean aitortzarik egin.

Lazkano, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakaria izan zinen. Nola gogoratzen duzu garai hura?

I.L.: Biltzen ginen taldeko kideen artean nagusia nintzen, eta norbait jarri egin behar zenez, ni izendatu ninduten. Ez nuen sentitzen lehendakaria izateko gaitasuna nuenik. Sarasuak-eta esaten zidaten lehendakari postuan jartzeko, eta behin baino gehiagotan, honakoa esan nien: "Nik ez diot ezer ukatzerik bertsolaritzari, baina zalantza dut mesede gehiago egingo al diodan karguan jarraituta edo utzita". Halere, eman nuena baino gehiago jaso nuen elkartearen lehendakari izan nintzen urteetan. Borondate handiko jende asko zegoen orduan, hala nola Andoni Egaña, Jon Sarasua, Iñaki eta Jesus Murua, Koldo Tapia... Iñaki Murua ni baino egokiagoa zen lehendakari izateko, eskolatuagoa, eta gainera, irakaslea. Gaitasun

handiko pertsona ona da Murua. Lehenago ere esan nion lehendakari kargua hartzeko, baina tarterik ez zuelako baztertu egiten zuen. Urte batzuk beranduago, halere, kargua hartzera animatu zen, eta ikaragarritzko poza hartu nuen. Muruak lan handia egin du elkartearen.

J.D.: Bertsolaritzaren motorra da Euskal Herriko Bertsozale Elkartea.

I.L.: Jende askoren iritzia jaso da, eta jende askok egin du lana, isilpeko lana.

Urte haietan zertan egin zuen lan elkarteak? Non jarri zenuten indarra?

I.L.: Bertsolaritzak arazo pila bat zituen orduan. Garai hartan, Joseba Arregi zen Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua. Jaurlaritzari laguntza eskatzen genion urtero, eta beti paso egiten zuen. Behin horrela, Arregik deitu zigun Bilbora joateko. Koldo Tapia artean ez segoen elkartearen, Jesus Murua bakarrik zegoen. Bilbora joan ginenean, sekulako bazkaria eman ziguten; horixe bakarrik balekoa. Arregik galdetu zigun zer proiektu genuen eskuartearen, eta Tapiak hiru proiektu mota aurkeztu zizkion. Guztira, 13 milioi pezetako aurrekontua zuen gure proiektuak. "Gustatu zaizkit, aurrera. Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu horiek", erantzun zigun Arregik. Orduan, Tapiak bere lantokia utzi zuen, bertsozale elkartera batzeko. Jendea buru-belarri murgildu zen proiektuetan, eta ohartzera-ko, diru guztia gastatu genuen. Pezeta bat emateko pezeta bat falta izaten omen da, eta azkenean, zentimo bakar bat ere ez zigun eman Jaurlaritzak. Bilboko Guggenheimen orduan hasi zen mugimenduan, eta diru guztia han inbertitu zuten, ez genuen dirurik jaso. Sekulako zorrak egin genituen, eta elkartea hankaz gora gelditu zen; zer egin ez genekiela geunden. Arantxa Mariskalek, Koldo Tapiak eta Jesus Muruak bilera batera deitu gintuzten orduan, eta han esan zigutena ez dakit beste inon gertatu ote den: baimena eskatu ziguten gizarte segurantzaren baja eman eta elkartearen alde lana musutruk egiteko. Proiektua horrela uzterik ez zegoela ulertzen zuten, eta haien bikoteak lan egiten zuten, moldatuko zirela esan ziguten. Elkartearen egoerari buelta eman nahian ari ginen orduan, eta handik gutxira, Egaña irabazi zuen Euskal Herriko txapela.



Ordura arte hura ez zen gehiegi sartu elkartean, baina txapela jantzi eta hurrengo egunean elkartearen egoitzan aurkeztu zen 09:00etarako. "Lotsa pixka bat ematen dit orain arte elkartean kolperik egin ez izanak. Orain txapela jantzi dut, eta zer dut egiteko?", galdetu zuen. Kontuak horrela, elkartearen hiru proiektuen buru jarri ziren Egaña, Sarasua eta Murua. Bakoitzak bere taldetxoa eratu zuen, eta orduan hasi zen elkartea benetan gora egiten; sekulako indarra hartu zuen, baina ez Jaurlaritzari esker. Amaitu berri zen txapelketak ere utzi zuen diru pixka bat, eta baliagarria izan zen lanerako. Handia izan zen hura.

J.D.: Agintariekin ezin da guztiz bat egin. Bertsolaritza beti izan da agintariekin kritikoa, eta hori askatasun handia da herriaren alde jokatu nahi bada.

I.L.: Bertsolaritza ez dute onartu historian zehar. Bertsolariak gauzak esaten ditu herriaren aurrean hitz egiten hasten denean, eta sarri askotan min ematen du. Politikariek eta Elizak ez dute sekula bertsolaritza begi onez ikusi, gorrotatu egiten zuten. Mozkorren eta gaizkizaleen mundua zela ere esan ohi zen. Behin horrela, gotzain ugari elkartu omen ziren Oñatiko [Gipuzkoa] Unibertsitatean egin zen batzar batean. Manuel

Lekuona apaiz gazteak aztertuta zuen ordurako bertsolaritzaren historia, eta guztien aurrean esan omen zuen bertsolaritza lau mozkorren historia baino zerbait gehiago zela; bertsolaritza herriaren ahotsa zela esan zuen.

J.D.: Oso prestigio gutxi zuen bertsolaritzak, bai. Karmelo Etxegarai bera ere ez zen bertsozalea, eta horien aurrean prestigio handia eman zion Lekuonak bertsolaritzari, nola intelektuali hala aztertzerakoan. Ahozko literaturari buruzko liburu bat ere idatzi zuen. Lekuonarentzat kultura ez zen goi mailakoena eta idatzitakoa bakarrik; hura bezain garrantzitsua zen herriaren kultura adierazten zuen bertsolaritza. ■



Ikusi eskusiban Imanol Lazkano eta Juanito Dorronsorori egindako elkarrizketaren bideoa QR kodea eskaneatuta.



Desnibela 223m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 9,8km
Denbora Zordu 7 minutu

Erreferentziak
0.00 Amenabar auzoa
1.19 Itaun Iturria
1.30 Hidrometeorologiako neurgailua
1.40 Zubia
2.07 Urtegiaren ertza



NUARBEO URTEGITIK BARRENA

MIREIA GALARZA BASTIDA

1991. urtean jarri zuten martxan Ibai-Eder urtegia Azpeitiko Nuarbe auzotik oso gertu, eta harrezkeroztik, urez hornitzen ditu inguruko herriak. Funtzio horretaz harago, baina, urtegiak ibilbide zoragarri bat egiteko aukera ere eskaintzen du. Hain zuzen, urtegia ia bederatzi kilometroko ibilgune zirkular batek biltzen du; oso erraza da egiteko, bai bakarrik, bai familia giroan.

Azpeitiko herriguneko zaratak alde batera utzita, txorien kantua da bertan entzuten den soinu bakarrenetakoa, eta lasaitasuna nahi duenak, erraz aurkituko du han, nahikoa jende gutxi ibiltzen baita normalean inguru horretan. Gainera, ibilbideak ez du galtzeko arriskurik ematen, leku berean hasi eta amaitzen delako. Beraz, urtegiko bi aldeetako edozeinetatik has daiteke txangoa.

Naturaz inguratutako ibilbidea da Ibai-Eder urtegiakoa, baina horrek ez du esan nahi ibilbidean zehar ez dagoenik ezer. Adibidez, nekea sumatzen duenarentzat banku batzuk daude txangoan zehar. Batzuk ez daude oso egoera onean, eta urteko garaia araberaren

artean ezkutatuta gelditzen dira, baina ondo etor daitezke atseden pixka bat hartzeko. Egarrri denarentzat ere badago iturria: Itaungo iturria izenez ezagutzen da.

Urtegiko ibilbideak ematen du aukera inguruko auzotara joateko: adibidez, Matxinbentara eta Nuarbera. Bide horiei buruzko panel informatiboak daude ibilbidearen hasieran, errepidetik oso gertu.

Zalantzarik gabe, goiza edo arratsaldea aprobetxatzeko aukera paregabea eskaintzen du Ibai-Eder urtegiak.

Motzean

- UK04 linea Nuaretetik pasatzen bada ere, onena autoz bertaratzea da, inongo presarik gabe. Urtegi parean autoa utzi, eta ibilbidea hasteko prest!
- Urtegiak Ibai-Eder erreka biltzen du, 223 metroko garaieran dago, eta guztira 11,3 hm3ko edukiera du. ■



Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Luis Gurrutxaga Nuarbeko bizilaguna txangoan, QR kodea sakelakoarekin eskaneatuta.



TELEBISTAN ERE

GUKA!
erto



Balletaren ametsetan

JENO OIARTZABAL GOMES BALLET DANTZARIA

Jeno Oiartzabal umetatik balletaz maiteminduta dagoen 16 urteko gazte azkoitiarra da. Lehen ikasketak Zarautzen egin ostean, 11 urterekin Jose Uruñuela Gasteizko dantza kontserbatoriora egin zuen salto, Floreaga ikastetxeko ikasketak utzita. Gaur egun, Gasteizen bizi da azkoitiarra, eta han uztartzen ditu ikasketa profesionalak eta Batxilergoa.

Testua: **Saioa Murua**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Jeno Oiartzabal ballet dantzaria da, eta egun, Jose Uruñuela Gasteizko dantza kontserbatorioan ari da ikasten, Batxilergo ikasketekin batera. Gipuzkoan jaio zen, baina bere bizitzaren lehen urteak Burgosen (Espainia) eta Brasilen eman zituen, amarekin. 7 urterekin itzuli zen Euskal Herrira, eta orduz geroztik, Azkoitian bizi da bere aita Imanol Oiartzabalekin eta haren bikote Esther Martinekin.

Oiartzabalek presente du bere jatorri hegoamerikarra, batez ere dantzarekiko duen grinaz hitz egiten duenean. "Nire odol brasildarrak ere izango du eragina dantzari izateko hartutako erabakian. Dena den, aita dantzaria izateak ere asko erraztu du dena". Oro har, estilo guztietako dantzak ditu gustuko azkoitiarrak, baina gogoan du haurra zenean ikusten zituen telesailetan bereziki arreta deitzen ziola balletak. Azaldu duenez, 3 urte zituenean ikusi zuen zuzenean lehenengoz ballet entsegu bat Burgosen, eta orduan maitemindu zen dantza mota hartaz. Hain zuzen ere, oso gazte hasi zen balletaren munduan gehiago sakontzen eta zaletasuna seriotasunez hartzen. Izan ere, 11

urterekin, Zarautzen balleta zaletasun moduan praktikatzetik Gasteizko Jose Uruñuela dantza kontserbatoriora salto egiteko probak egin zituen. Benetan gustatzen zitzaionarekin jarraitzeko erabakia hartuta, eta aitaren babesarekin, Azkoititik Gasteizera joan zen bizitzera; bere familiarengandik urrundu eta beste familia batekin bizitzen hasi zen orduan: "Ez nuen uste kontserbatorioan hartuko nindutenik. Gainera, ez nintzen jabetu kontserbatorioan onartuz gero nire bizitza zenbat aldatuko zatekeen, baina aitak esan zidan, hori horrela balitz ere, ez zela ezer gertatzen, ez baininduen inork ezagutzen; hori esan zidanean lortu nuen probak egiteko behar nuen azken bultzada".

Diziplina eta zorroztasuna

Azkoitiko gazteak adierazi du dantza egitean "aske" sentitzen dela; "deskonexio une bat" dela dantza, soilik berarentzat den momentua: "Liberatzailea da niretzat dantza egitea, une horretan beste dena desagertu egiten delako. Dantzan ari naizenean, arazoak at uzteko momentua dela sentitzen dut". Gauza guztiek bezala, ordea, balletak ere baditu "argi-ilunak". Balletaren munduak fisikoarekiko





duen "zuzentasuna" eta dantzariak "perfekzioa" bilatu behar izatea dira dantzariari gogorren egiten zaizkion gauzak; izan ere, hori, azken finean, "buruhausteen eta ziurgabetasunen iturri" izan daiteke, batez ere dantzaria gaztea bada. "Tristea da, baina balletetan dantzariaren fisikoak garrantzi handia du, eta hori oso gogorra da psikologikoki". Diziiplina horren ondorioz, bere buruarekin "oso zorrotza" dela dio azkoitiarrak, eta gaineratu du zerbait lortu arte ez duela etsitzen: "Egunerokoan, zaila egiten zaizu ongi egiten ari zarenaz ohartzea, baina okerragoa da egin ezin duzuna lortzeko estutasuna".

Dantzaria bere ibilbidean hartutako erabakiez damu ez bada ere, hark onartu du une batzuetan hausnartu izan duela bere egoeraz. "Batxilergo ikasketak Azkoitian egingo nituela uste nuen; agian, nire burua ez nuen dantzaren munduan hain urrunera iristen ikusten". Ildo honetatik, lantzean behin "etxetik gertu eta era berean urrun" sentitu izan zen Oiartzabal, batez ere bere betiko kuadrillarekin elkartzen zenean; izan ere, lagunaren artean hizketagai ziren gaietan "nahiko kanpoan" sentitzen zen gaztea, hainbat aste Azkoitira etorri gabe igarotzen zituenean. Hala eta guztiz ere, gaur egun anekdota gisa gogoratzen du dantzariak igarotako guztia, une hauetan lagunekin duen harremana inoiz baino indartsuagoa dela sentitzen baitu. Dena den, azpimarratu du Gasteizen ere lagun berriak egin izanak babesa eman diola bizitzak eskaini diona positiboki baloratzeko. "Gasteizen ere lagunak egiten hasi nintzen, eta kuadrillan tokiz kanpo sentitzen nintzen garai hartan hiriburuan lagunak izateak asko lagundu zidan".

Dantzako taldekideekin ere "laguntasun handiko harremana" duela adierazi du, elkarrekin ordu asko igarotzen baitituzte, eta askotan elkarren sostengu handiena izan ohi dira.

Hasiera-hasieratik, ongi hartu zuten Oiartzabal dantza taldean, eta gainera, kideetako batzuekin ikasketak ere partekatzen zituenenez, harreman "oso estua" izan zuen hasieratik. Balletaren mundua zaila eta zorrotza da, ordea, eta horrek badu eraginik dantzarien joan-etorrian: "Beraz, harremanak ere aldatzen joan ohi dira". Dena den, dantzak eman dion onena jendea ezagutzea eta esperientzia hori bizitzeko aukera izatea dela adierazi du. "Nahiz eta aldian behin, eskolako zenbait kideekin harremana hoztu, beste batzuekin hartu-eman oso sendoak eraikitzeke, pertsonalki hazteko eta esperientzia hau bizitzeko aukera eman dit dantzak". Gazteak azaldu du, gainera, bere aitak eta haren bikoteak beti babestu dutela, eta horrek are errazagoa egin diola bere ametsarekin jarraitzea.

Amets baten lehen geltokia

COVID-19ak ezbaian jarri zuen Oiartzabal eta bere taldekideek aurreko ikasturtean San Petersburgora (Errusia) joateko zuten aukera, baina gaitzak, azkenean, ez zuen lehia hori irabazi, eta azkoitiarra "balletaren sehaska" den hirira joan zen. Taldeko dantzarien artean, Oiartzabalen moduan, Gasteizera joandako hainbat kide daude, tartean, Alba Hermoso eta

Jeno Oiartzabal

- **Adina:** 16 urte.
- **Ikasketak eta lanbidea:** Ballet dantzaria.
- **Dantzaria ez banintz...** Abokatua edo irakaslea izango nintzateke ziurrenik.
- **Ikasketak amaitzean...** Balletetik bizitzeko ametsa jarraitu nahiko nuke, nahiz eta horrek etxetik urruntzea eskatu.



Daniela Perez. Bidaia harekiko oso oroitzapen onak ditu Oiartzabalek, eta hain zuzen, esperientzia hark dantzarekin jarraitzeko indar gehiago eman ziola jakinarazi du azkoitiarrak. "Dantzaz gozatzeko aukera izateaz gain, eta balleteko irakaslearen lagun bati esker, San Petersburgon *vip*-ak sentitu ginen uneren batean". Errusian bada, agian, Euskal Herrian ez dagoen balletarekiko sentsibiltatea eta zaletasuna, eta Oiartzabalek adierazi duenez, hango dantzarien mailan antzeman daiteke hori: "Emanaldia baino zortzi ordu lehenago joan ginen Alexandrinsky antzokira, eta hara sartu orduko, nire belaunak dardarka hasi ziren. Hango dantzarien maila oso-oso altua da". Hala eta guztiz, agertokira irten orduko lasaitu zen azkoitiarra, eta dantzatzearan sentitzen duen

askatasuna izan zuen Errusiako antzoki nazional zaharrenean.

Egun, ikasketak amaitzeko urtebete geratzen zaio Oiartzabali; hark argi du dantzan jarraitu nahi duela eta horretarako aukera bakarra atzerrira joatea dela. "Espainian oso zaila da balletetik bizitzeko aukera izatea, beraz, hurrengo urtearen ostean kanpora joateko asmoa dut, eta hori posible izateko beka bat lortzea dut amets".

Balletari komunikabideetan beste diziplina edo kirolei ematen zaien leku berbera ematearekin ere amesten du gazte azkoitiarrak: "Dantza kirol gisa onartuta ez egoteak garrantzia kentzen dio gure diziplinari, beste edozein kirolek adina esfortzu eskatzen duelako gureak". Hain zuzen ere, jendeak balletarekiko duen irudia aldatu dezan, herritarrak antzokira gerturatzerara animatu ditu. ■■■

BETI ZUREKIN

GIPUZKOA
943 903 450

Bertako lagagailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. Solbuespenik gabe.



BETI ZUREKIN
LAGAGAILUAK



BETI ZUREKIN
LAGAGAILUAK



BETI ZUREKIN
LAGAGAILUAK



bertako
www.bertako.eus





Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Latazila edo negula ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	



DOMINOAN

Mezua

Marrazkitxoak ezkutatzen duten esatera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esatera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide betez, irudia margotu.



ALFABETOA



Itzala

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotekez mozarrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk estuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



Engainariak

Zazpi txatal haueketik hiru ondoko irudi nagusirik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Berez itzazu.



Betleemgo zati bat Azkoitian

TESTUA: ANARTZ IZAGIRRE

ARGAZKIAK: ANARTZ IZAGIRRE ETA
UTZITAKOAK

Abenduaren etorrerarekin, Gabon giroa nagusitzen joaten da urtero-urtero, salbuespenik gabe, Azkoitian. Beroki potoloak, noizbehinkako elur malutak, argi koloretsuak eta herriko dendetan zehar joan-etorrian dabiltzan pertsonak ohikoak dira urteko hamabigarren hilabetean. Horrez gain, bada kristauen usadio zaharrei jarraiki, Eguberrietan hutsik egiten ez duen beste elementu bat: Jesukristoren Natibitatea irudikatzen duen Jaiotza.

Eguberri inguruan Andre Mariaren Jasokundeko parrokiatik osteratxo bat egin izan duen oro ohartuko zen Jaiotza jartzearena urteetan mantendu egiten den ohitura dela, eta azken hamarkadetan leku desberdinak eta itxuraldaketak izan baditu ere, herritarrentzat etenik gabe presente egon ohi da abenduaren amaierarako. Azken urteetan Joxe Mari Larrañaga (Azkoitia, 1959) izan da Jaiotzaren antolakuntzaz eta prestakuntzaz arduratu den herritarretako bat, eta beretzat oso eginbehar "berezia" dela azaldu du.

Duela hamarkada bat pasatxo jaso zuen lehen eskaera Larrañagak: "Joxe Azkoitia erretoreak deitu zidan duela urte batzuk, eta Jaiotzaren

inguruan nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan. Jaiotza Raimundo Alberdik, Xanti Lopetegik eta hark muntatu ohi zuten orduan, eta haiek ezin zutenean horretaz arduratuko al nintzen galdetu zidan. Baietz esan nion", azaldu du Larrañagak. Hark dioenez, garai hartan ez zuen Jaiotzaren muntaketaz ideia handirik, baina azaltzen bazioten egingo zuela adierazi zion. "Eta halaxe hasi nintzen, Joxe *Xapaterorekin* eta Luis *Parederorekin* batera zeregin horretan".

Garai batean parrokiako koroaren azpian jartzen zuten Jaiotza, baina Larrañagaren arabera, Felix Azurmendi parrokoari ez zitzaion hura lekurik egokiena iruditzen: "Azurmendik esan zidan San Juanen erretaularen aurrean jartzea egokiagoa iruditzen zitzaioela, koroaren azpian ez zelako ondo gelditzen. Egia esan, leku itxurosoa da erretaula aurre hori; jendeak elizako sarrera-irteeran ikus dezake, gainera. Ordutik han jartzen dugu". Jaiotza horretaz gain, beste bat ere jartzen dute

**JAIOTZAREN URTEROKO
MANTENUA KONTU
"OSO GARRANTZITSUA"
DELA AZALDU DU
LARRAÑAGAK**

Eguberri bezperan, altarean; ekitalditxo batekin inauguratzen dituzte biak.

Gaur egungo Jaiotzaz gain, urte batean handiago bat ere jarri zutela gogoan du Larrañagak: "Etxe Beltzen Jaiotza handi bat zegoen, eta hura parrokian jartzea zen asmoa. Urte batean egin genuen ahalegina, baina hurrengo urteetarako ez zitzaigun bideragarria irudit. Izan ere, lan handia eskatzen zuen, eta lantegi hori guztia bi hilabetetarako hartzea... Teknologikoki ere oso zaila zen, gainera, muntaia". Jaiotza hori, egun, Santa Klaran dagoela dio azkoitiarrak, desmuntatuta: "Ikusgarria da, eta elementu pila bat ditu: lainoak, errota, sua, ihintza... Muntatzea nahi duenak badaki non dagoen".

Asteetako lana

Larrañagaren arabera, izatez urrian hasi ohi dira Jaiotza prestatzeko lanekin, baina aurten, beranduago hasi direla aitortu du: "Oso lanpetuta ibili naiz, eta beranduago hasi gara aurten guztia prestatzen. Lau lagun ibiltzen gara orain zeregin horretan, eta nik, argindarraren-eta ardura dut". Gutxi gorabahera hilabete eta erdi behar izaten dute dena prestatzeko, eta urtez urte, hainbat berrikuntza izan direla nabarmendu du: "Orain ez ditugu bonbilak jartzen, LED argiak baizik. Ikasten eta gauza



berriak probatzen ari gara". Jaiotzaren beraren urteroko mantenua ere "oso kontu garrantzitsua" dela azaldu du Larrañagak, eta Inaxio Azkue arduratzen dela horretaz: "Oso ona da piezak zaharbertitzen, bereziki txikiak direnean. Apurtutako gauzak ere berak konpontzen ditu; sekulako lana egiten du".

Askotariko figurak jartzen dituzte Jaiotzan, horietako asko leku berezietatik ekarritakoak: "Oraingo Jaiotzaren piezak Raimundorenak ziren, eta nik esan nion bere omenez mantendu egingo nituela hainbat urtez. Bestalde, elementu batzuk Jerusalemetik ekarritakoak dira. Neuk ere ekarri nuen abesbatzaren irudi bat Madrildik". Elementu eta irudi erlijiosoak ez ezik, bestelako figurekin herriko ukitua ere ematen diote Jaiotzari: "San Martingo ermitaren irudia jartzen dugu, eta pentsatu genuen barrikak jartzea ere, baina oraindik proiektu bat besterik ez da. Dena den, egingo dugu hori ere egunen batean, ziur naiz".

Aurten, gainera, donazio bat jaso dute, eta datorren urterako bestelako Jaiotza bat prestatuko dutela aurreratu du azkoitiarrak: "Egoitzako mojenak ziren figurak jaso berri ditugu; Fernando Unanuek muntatzen zuen hura han, eta parrokiari eman dizkio orain". Azkoitiarrak adierazi duenez,

balio handiko irudiak dira horiek, eta bolumen handiagoa eskatzen du Jaiotzak. Hala eta guztiz, San Juanen erretaularen aurrean jartzen moldatuko direla ziur da Larrañaga: "Erretoreak aurtengo Jaiotza ere pieza horiekin jarri nahi zuen, baina ez dugu horretarako denborarik izan. Beraz, datorren urrian buru-belarri jarriko gara horrekin, eta Jaiotza berria muntatuko dugu. Aurten hala beharko du".

La Palma gogoan

Urtero-urtero Jaiotzak gogoan izaten du elkarte edo urteko gertaeraren bat. Iaz, esaterako, osasun langileak izan zituzten gogoan COVID-19ak eragindako pandemian egindako lanagatik, eta duela bi urte, Itsas Salbamendu Humanitarioko kideak omendu zituzten. Larrañagak aurreratu duenez, aurtengo Jaiotzaren bidez La Palma uharterko Cumbre Vieja sumendiak eragindako biktimak izango dituzte gogoan, eta, gainera, dagoeneko sumendiaren irudia egiten ari dela ere azaldu du azkoitiarrak: "Neu ari naiz

JAIOTZAREN URTEROKO MANTENUA KONTU "OSO GARRANTZITSUA" DELA AZALDU DU LARRAÑAGAK

sumendiaren irudia egiten, eta laba ere jarriko diogu, argien bidez".

Ohi bezala, aurten ere abenduaren 25etik otsailera arte egongo da ikusgai Jaiotza, eta iaz, koronabirusa zela-eta ekitaldirik egin ez bazuten ere, aurten berreskuratu egingo dute ekintza hori: "Kandelario egunera arte edukiko dugu ikusgai Jaiotza, esaten dutenez hori baita ohitura zaharra. Haurrek inauguratu eta piztuko dute Jaiotza". Iaz, osasun krisiak eragindako oztopoak izanagatik, ez zuten hutsik egin: "Edukiera muga kontrolatzeko pertsona bat jarri genuen, eta dena ondo joan zen azkenean". Aurten izurriak eraginik ez izatea espero dute, eta egunero, goizez zein arratsaldean egongo da Jaiotza ikusgai. Larrañagaren arabera, mila bisitari inguru jasotzen dituzte urtero: "Umeek eskolan oporrak hartzen dituztenean antzematen dugu jende gehiago etortzen dela Jaiotza ikustera".

Urtero ilusioz eta gogo handiz egiten du Jaiotza jartzeko zeregina Larrañagak, eta pasioz bizi du bere egitekoa: "Beti gustatu izan zaizkit Gabonak, eta honek giro horretan sartzen laguntzen dit. Horixe da ederrena". Datozen urteetan ere Jaiotza antolatzen jarraitzeko asmoa nabarmendu du: "Ahal dudan bitartean jarraituko dut zeregin horretan". ■■■



COVID-19aren biktimak oroitzeko egindako irudia, iazko Jaiotzan. NEREA URANGA



Jaiotzaren irudi bat duela urte batzuk.



Joxe Azkoitia erretorea Jaiotzarekin, artxiboko irudian. UTZITAKOAK

"Liburu bat osatzeko moduko istoriak ikusi ditugu tabernan"

Axen Etxaniz (Azkoitia, 1954) urte askoan ibili da Olaberri taberna zuzentzen. Duela lau urte hartu zuen erretiloa, eta harrezkero, emazteari tabernako lanetan laguntzen dihardu. Tabernako lana eta zaletasunak nola uztartu dituen azaldu ditu azkoitiarrak beretzat horren berezia den Olaberri tabernan.

Testua: **Andoni Elduairen Soraluze.**

Argazkiak: **Andoni Elduairen Soraluze eta utzitakoak.**

Axen Etxaniz eta Olaberri taberna uztarri bereko bi hitz dira. Noiztik duzue lotura?

1982. urtean ireki genuen taberna. Tabernan hasi aurretik, Azpeitian egin nuen lan zazpi urtez. Garai hartan, aurrezki-kutxa bat zegoen egun taberna dugun lokalean, baina hura itxi egin zuten, eta lokala hutsik gelditu zen. Aldi berean, Azpeitian lan egiten nuen enpresak ere ateak itxi zituen, eta aitak lokalean taberna bat irekitzeko esan zidan. Hala jarri genuen martxan Olaberri.

Zein da zure tabernaren historia?

Garai batean jatetxea ere bazen Olaberri. Hiru jangela zituen; bi handi eta txiki bat. Jangela txikira asko etortzen ziren Zubillagara lanera joaten ziren beharginak. Jangela handietan, berriz, ezkontzak, ezkon-aurreko bazkari-afariak, jaunartzeak eta abar egiten ziren. Herrian Olaberri bezala ezagunagoa izan arren, Fonda Elorza zen garai hartan gure txokoa. Amak, izebak eta alboko etxean bizi zen emakume batek lan egiten zuten jatetxean; aitak, berriz, tabernan. Tabernaren gaineko lehen solairuan zeuden sukaldea eta bi jangela; bigarren solairuan, berriz, jangela handi eder bat. Aurrezki-kutxa itxi zutenean, tabernarekin hasi nintzen, eta emaztearekin batera atera dugu aurrera, poliki-poliki.

Zer da zuretzat Olaberri?

Egun, ez dakit Olaberri gabe zer egin asmatuko ote nukeen. Asteburuetan, lagun jakin batzuk kirola ikusteko elkartzen gara tabernan. Olaberririk gabe, beharbada, beste taberna batera joaten hasi beharko nuke, beste ohitura batzuk hartu... Egun zailak ere izan ditugu. Ireki eta urtebetera, uholde handiak izan ziren Azkoitian. Moketazko



lurra genuen, eta sofak ziren eserlekuak; guztia hondatu zitzaigun urarekin.

Ordu asko igaro dituzu barra barruan. Zer du ederra barra barruko lanak?

Aldekoak gehiago ditu kontrakoak baino. Tabernan beti egoten dira eztabaida txikiak. Pertsona guztien jokabidea ez da bera izaten, are gehiago edaten denean. Halere, jende oso ona ezagutu dut hemen, baita bitxikeria asko ikusi ere. Era berean, askorentzat handitasuna agerian uzteko lekua ere bada taberna. Hala eta guztiz, tabernariok gauza asko ematen dizkiegu bezeroei, hala nola berriketaldiak, telebista, egunkaria...

Asko aldatu al da tabernako panorama?

Asko aldatu da, bai. Taberna aitzak kudeatzen zuen garaian, txikito asko edaten zen egunez. Gauean, berriz, ohitura zen afalondoren tabernara joatea eta kafea nahiz pattarra hartzea. Egungo gazteek ez diote edateko modu horri jarraitu, eta nahiago dute konbinatua edota garagardoa edatea. Gure tabernako botilategia ikusiko bazenu... Edari batzuk hautsa hartuta daude. Orain, konbinatueta, ginebra asko edaten da, eta patxarana nahiz whiskia hutsik ere bai. Gainera, gazteek etengabe asmatzen dituzte orain konbinatu berriak, eta tabernariok eskatzen dutena

zerekin egiten den galdetu behar izaten diegu sarri-sarri.

Tabernako ohitura zaharrak galtzen ari direla diozu...

Bai, noski. Tabernako beste adibide bat emango dizut: lehen, esaterako, tabernatik tabernarako bidea kantuan egiten zen. Abesti ederrak abesten ziren, herrikoiak bereziki. Dantza ere egiten zen tabernetan. Ohiturari eusteko, trikitilarien kalejira eta bazkaria antolatzen ditugu guk urtero.

Tabernako anekdotak eta istorioak ere izango dituzu.

Kontatuko al duzu bakarren bat?

Behin gure tabernan gertatu zena kontatuko dut. Bi emakume elkartu ziren, eta horietako baten umea amari deika ari zen; haurra kakagureak zegoen. Amak kasurik egiten ez ziola ikusi zuenean, galtzak jaitsi eta tabernaren erdian kaka egin zuen umeak; zer egingo zuen, bada, gizarajoak. Beste behin, berriz, komuna zementatu ziguten, baita hoderiak errotik hautsi ere. Beste bezero batek, berriz, gezurrak kontatzen zituen etortzen zen bakoitzean; azkenerako berak ere sinetsi egiten zituen. Liburu bat osatzeko moduko istoriak ikusi ditugu hemen.

Tabernaren bidez lagun handiak egin dituzu, ezta?

Bai, noski. Halere, eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi, Juan Esteban Artetxe zenarekin egin nuen tratua. Herrian giro ona sustatzeko asmoarekin, askotan

**"TXARANGAREN
AURRETIK KERTENAK
IZENAREKIN TURUTAK
JOTZEN GENITUEN
BOLADA IZAN GENUEN"**

**"SOLDADU GARAIA
AUTO ISTRIPUA IZAN
NUEN, ETA 107 EGUN
EGON NINTZEN OHETIK
ALTXATU GABE"**

biltzen ginen kontzertuak antolatzeko. Lagun handiak egin ginen, eta oso harreman ona egin nuen harekin. Bizitzak aurrera darrai, baina haren faltak markatuta utzi ninduen.

Tabernako hormei begiratzea nahikoa da futbolzalea zarela igartzeko.

Jakina. Eskolatik futbola ikustera Bilbora eraman gintuzten lehen aldiz. Gogoan dut partida ere: Athletic-Las Palmas. Orduan egin nintzen futbol zalea; ez dut esango athleticzalea egin nintzenik, baina bai jarraitzailea. Gero, Real gora egiten hasi zen pixkanaka, herriko jokalariai partaide ziren, gainera. Orduan ikusi nuen hura zela nire taldea. Realaren Olaberri izeneko taldea ere sortu genuen. Iraurgi elkartean egin genuen aurkezpena, eta Jabo Irueta izan zen taldeko lehen bazkidea. Anaitasunan ere ibilitakoa naiz, gazteen eta nagusien mailetan. Gogoan dut soldadu garaian sekulako kolpea hartu nuela Legazpin [Gipuzkoa]. Aurrerago, Anaitasunatik Debako [Gipuzkoa] Amaiak Bat taldera joan nintzen, urtebetez utzita. Asko jarraitzen dut Anaitasuna ere.

Kolpearen ondorioz soldaduska egitetik libratu al zinen?

Soldadu garaian auto istripua izan nuen, eta berna-hezurra, peronea eta izarrezurra hautsi nituen. Gogorra izan zen; pentsa, 107 egun egon nintzen ohetik altxatu gabe.

Futbolaren aitzakian asko bidaiatu duzu, ordea.

Bai, horrela da. Real azkenekoz txapeldunorde izan zenean Vigon [Galizia] nintzen. Athleticen aurkako finalera ezin izan genuen joan, baina bai beste final guztietara, hala nola Madrilera eta Zaragozara (Espainia). Orain, Anoetara ere joaten gara. Futbol zelaira joateko autobusa antolatzen dugu Olaberrin, eta Realak bi eserleku esleitu dizkigunez, partidaro han izaten gara.

Europara bidaiatu al duzu?

Bai, eta bidaia xeblebre bat ere egin genuen. Behin, Liverpoolera [Erresuma Batua] joan ginen, Liverpool eta Bayer Leverkusen taldeek jokatu zuten Txapeldunen Ligako partida ikustera. Lagun baten lehengusuak esan zigun partidarako sarrerak lortuko zizkigula, eta hori horrela, hara joan ginen. Une oro egon nintzen Xabi Alonso jokalariaekin harremanetan. Iritsi ginen hara, hotelera joan, trasteak utzi eta Alonsok emandako sarrerak jaso genituen. Guk, ordainetan, Azkoitiko makarroi kaxa bat eman genion tolosarrari. Partida ikusiz gozatu genuen, eta etxera itzuli ginen. Antza, ordea, gaizki ulertu ginen Alonsorekin; izan ere, handik pixkatera Alonso kexu agertu zen, sarrerak ez genizkiolako ordaindu. Gure asmoa ez zen ordaindu gabe libratzea; gaizkiulertua izan zen. Hori entzun genuenean, telefonoz harekin harremanetan jartzen saiatu ginen, baina ez zigunez erantzun, kontu korrontean sartu genion dirua.

Zaletasun gehiago ere badituzu, besteak beste, elkarre bateko kidea zara.

Plaza Berri elkartekoa naiz. Iraurgi elkarteko sortzaileetako bat izan nintzen. Astelehenero joaten nintzen lehen Iraurgira, xerra bi arrautzekin eta patata frijituekin jatera. Otsailaren 23ko estatu kolpearen egunean ere han ginen, baina guk ez genion jaramon handirik egin. Ez dakit, gehiegi joaten ginelako izan zen, baina utzi egin nion Iraurgiko kide izateari. Elkarreetatik kanpo tarte bat egin ondoren, Plaza Berri soziedadean lekua zegoela jakin nuen, eta hantxe sartu nintzen lagun batzuekin batera.

Eta zer moduz moldatzen zara sukaldean?



Esan dugu ohiturak aldatzen ari direla, eta hona hemen beste adibide bat: lehen, elkartera bere espezialitatea prestatzera joan ohi zen jende asko; orain, ordea, tabernetatik edo jatetxeetatik hartutako janaria eramaten du askok. Beti izan naiz sukaldaria, eta gainera, ondo moldatzen naiz. Hiru espezialitate ditut: buztana saltsan, gisatutako haragia eta tripakiak garbantzuekin.

Xoxote txarangako kidea ere izan zinen.

Txaranga hasi baino lehen, Kertenak izenarekin turutak jotzen genituen bolada izan genuen. Talde bateko hiru edo lau lagun etortzen ziren laguntzera. Anaitasunaren eta Realaren arteko partida batean izan ginen, baita andramaixetan plazako kioskoan emanaldia eskaini ere. Gero, Xoxote txarangako zuzendari izateko proposamena egin zidaten, eta

onartu egin nuen. Txaranga zuzentzeko hainbat gauza behar dira, eta, egia esan, ni ez nintzen oso trebea. Aitzakia horretan, baina, leku askotara joan ginen.

Iraurgi abesbatzan ere aritu zinen.

Abesbatza kontu serioagoa da. Miguel Mari Azpiazu zen orduan Iraurgi abesbatzako zuzendaria. Alemaniako bi herritan izan ginen behin, eta egundoko mezak eta prozesioak ikusi genituen. Baina atzerrian bakarrik ez, herrian eta inguruko herrietan ere eman genituen kontzertuak.

Beste zaletasunik ba al duzu?

Ehiza eta txirrindularitza. Urtero Sevillako [Andaluzia] Los Marañon izeneko finkara joan ohi ginen ehizara. Behin, Sevillako feriara ere joan ginen anaia, koinata, emaztea eta laurok. Hoteletik atera ginenean, atearen aurrean, lau zaldiko gurdia aurkitu genuen gidari eta guzti. Finkako nagusiak etorri ziren guri harrera egitera, eta gurdira igota, feriara joan ginen. Beste batean, Pilatos jauregian egin zen ezkontza batera gonbidatu gintuzten. Trianaren prozesioa ere ikusi genuen orduan.

Eta bizikleta gainean zer moduz?

Talde ederra ibiltzen ginen. Lagos de Covadonga [Asturias, Espainia] askotan joan ohi ginen. Pirinioetara ere sarritan, besteak beste, Tourmaletara, Marie Blancera, Luz Ardidenera eta Hautacamera (Frantzia). Izoard, Galibier eta Alpe d'Huez mendiak ere igota nago. Hemen, aldiz, igandero ateratzen ginen ehun kilometroko ibilbidea egitera. Herritik abiatu eta Zumarraga, Oñati, Bergara, Itziar, kostaldeko herriak eta Azpeitia egiten genituen, berriz Azkoitira itzultzeko. ■

GARAJE
AXIRI

**MARKA GUZTIENTAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com





Herriaren altxorrak

Ondare artistiko zein arkitektoniko aberatsa du Azkoitiak, eta herrian paseo bat ematea besterik ez dago dituen altxorrak ugari direla ikusteko. Herriaren historiaren zati bana gordetzen du monumentu, jauregi eta eraikin bakoitzak, eta era berean, herriaren bilakaeraren lekuko ere bihurtu dira. Horietako batzuk dira honako hauek. Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Alex Berasategi**.



Floreaga dorretxea

1514. urtean hasi ziren eraikitzen Aizkibel kaleko 10. zenbakian dagoen Floreaga dorretxea. Mudejar estiloko eraikina da, eta Pedro Zuazolaren aginduz egin zuten, familiaren eraikin baten gainean; Karlos V.a enperadorearen idazkaria eta diruzaina izan zen Zuazola. Egun Joseba jatetxea dago bertan.

Idiakez dorretxea (Etxe Beltz)

Erdi Aroko harresi zaharraren babesean eraiki zuten Kale Nagusian dagoen Etxe Beltz. Idiakezen, Olanoren eta Loiolatarren armari historikoak ikus daitezke eraikinean, eta horrek erakusten du dorretxea garai batean Loiolako Inazio Donearen Jaurerriarena izan zela. Karlos V.a han ezkondu zen Beirako printzesarekin, 1838. urtean.



Altzibar jauregi-etxea

Pedro Abendañok diseinaturiko jauregi-etxea da, eta 1553. urtean eraiki zuten, udal bulegoak bertan jartzeko asmoarekin. Udaletxea egun dagoen tokira lekualdatu zutenean, berriz, hiri-jauregi bihurtu zen, 1735. urtetik aurrera, hain zuzen ere. Kale Nagusiko 102. zenbakian dago eraikina.



Balda dorretxea

XIII. mendean hasi ziren eraikitzen Balda dorretxea. Etxearen jabeak Ganboatarren aldekoak izan ziren, eta XV. mendean dorre gotorra bota eta etxe bilakatu zuten. Bertan bizi izan ziren, besteak beste, Loiolako San Ignazioren ama zena, Marina Likona Balda. Izen bereko plaza dago behean, eta bertan daude Erdi Aroko Zubietako eta Markeskua dorretxeak ere.



Aizkibel liburutegia

Trenbidearen Zumardian dago Azkoitiko Udal Liburutegiaren egoitza den Aizkibel eraikina. Urolako trenaren geltoki izateko sortu zen, eta hura itxi zenean, liburutegia jarri zuten bertan. Duela urte batzuk, Juan Beldarrain arkitektoak hainbat moldaketa egin zituen eraikinean, eta Espainiako Kultura Arkitektoniko eta Urbanistiko Jasangarriaren saria jaso zuen 2007an.



Insausti jauregia

XVIII. mendean erdialdean eraiki zuten Julio Urkixo etorbidean dagoen Insausti jauregia. Eraikin barrokoa da, baita mota horretako eraikin bakarra ere, ilustrazioko pentsamolde berritzailea zela eta, haren eraikuntza prozesuan arkitektura tratatu teoriko propio bat garatu baitzen. Peñafloidako kondea izan zen Xabier Munibe bertan jaio zen.

Gaztan Enea jauregia

XX. mendean egin zen egun Bizkargi musika eta dantza eskola nahiz Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialaren gela desplazatuak dituen Gaztan Enea jauregia. Euskal estilo neoerrenazentista du eraikinak, eta Xabier Munibe kalean dago kokatuta. Garai hartan Alberdi familiaren jabetzakoa zen jauregia. ■■■



Disimuluaz



MAITE LOPEZ LAS HERAS

Emakumeon disimuluaz arituko natzaizue honako honetan. Edo, zehatzago esanda, emakumeok disimulatzeke dugun inposatutako beharraz. Are zehatzago: emakumeoi bizitzako hainbat esparrutan, soldatapeko lanean kasu, eskatzen zaigun plantak egiteko betebeharrak. Mina jendaurrean ezkutatzeko betekizunaz, hain zuzen ere.

Emakumea biologikoki minarekin loturik dagoela esatera ausar naiteke, sozialki hura ostentzera derrigorturik dagoela esatera ausar naitekeen modu bertsuan. Hilekoaren minak, esate baterako, emakume batzuei gogor erasaten die, etzanda egotera behartzeraino. Hor hasten da, ordea, aurkaritzako juntaduren festa. Menstruazioa lanegun batean egokituz gero, edo azterketa egunean, edo bilera egun batean, medikatzeko obligazioarekin bekoz beko egiten dugu topo. Pilulen efektuz mina lokartu arte, disimulatu egin behar, batez ere, jendaurreko lanetan. Ikasle, ikusle, bezero, manuko, gaixo edo lantalde aurrean aritu behar duen emakumezkoak, bestela baitakoan, irribarretsu, osasuntsu, zoriontsu eta indartsu agertu behar du besteen aurrean, osterantzean, gutxietsi edo ahultzat joko dutelakoan.

Antzerako zerbait gertatzen da haurdunaldiaren lehendabiziko hilabeteetako sintomekin. Haurdun dagoen emakumeak, hala dagoela oraindik zabaltzeko zuhurtziaren isiltasunaz gain, zorabioak, goragalea, higuina eta nekea ezkutatzeko beharra jasan behar ditu, haurdunaldiaren berezko sintomez gain, laneko afera intrintsekoek gain. Sarritan, beraz, beharraren zama askoz astunagoa da, ondoeza bera baino.

Mina, edo kaltea, fisikotasunetik haratago, barnekoa ere izaten da, sentimenduetan, ariman edo pentsamenduan zorrotz iltzaturikoa. Ildo horretatik, janzkeraren gaia ere aipa genezake. Noizbait entzun izan dut emakume exekutibo askok takoidun oinetakoak poltsan sartu eta lantokira iristean zapatila erosoengatik aldatzen dituztela, hango itxurakeriaren protokoloak emakumeari irudi jakin bat eramanean dezan eskatzen diolako. Gizonak, pantera isilaren gisara, oinkada leunekin gurutzatzen du enpresako korridorea, emakumearen hankatako min eta neke fisiko zein mentalari entzungor.

Lantokia antzoki bilakatzen da, hortaz, maiz emakumearentzat. Instagrameko iragazkien baliokide den makillajeak estaltzen dizkio ama berriari bularra emateagatik lorik egin ezak eragindako betzulo ilunak, musukoak beharturiko irribarrea begiekin soilik marraztu behar izatea ekarri duen bezalaxe. Oraindik ez da asmatu, halere, mina publikoki naturaltasunez jasan ahal izateko askatasuna ematen duen filtro, maskara edo pilularik. ■■■

**EMAKUMEA SOZIALKI
MINA OSTENTZERA
DERRIGORTUTA
DAGOELA ESATERA
AUSAR NAITEKE**

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.



Zeu zara zure *influencer* onena.
#KontsumitzenJakin

Euskaratik sortu



IXABEL JAUREGI

Marga Iñiguezek 50 urte daramatza aholkulari lanetan, batez ere sormenari buruzko tailerrak ematen, eta zera irakurri diot *Argia*-n. "Sormena eskubide bat da, eta premiazkoa. Pertsonak eta herriek gure singularitasun eta nortasun propioa izateko dugun eskubidea da, gure estilo propioetik transformatzeko eta aurrera egiteko".

Era berean, *Berria*-n irakurri dut 2022ko udazkenean Getxon abiatuko dela XVIII. Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta finala Iruñea Arenan jokatu dela, abenduaren 18an. Bertsolaritza sormen arrago bat den aldetik, Iñiguezek esandakoa hitzez hitz betetzen da.

Kalean, sormen tailerren iragarkiak: "Kattagorri Artea, tailer artistikoak; Garazi, haurrentzako sormen tailerrak; Artelan: marrazki artistiko, pintura, buztin modelaketa...". Gune horietan norbera izateko aukerak zabaltzen dira, desberdinen artean elkarrekin arituz. Ikasten diren teknikez gain, konfiantza ere lantzen da. Ondoren dator sortu denarekin gustura sentitzea.

Erniarraitzek ere zabaldu du deialdia, ez du *sormen* hitzaren amurik bota, baina aurreko sormen gune horiek lantzen dutena jorratzen du. Andoni Egañari irakurri nion behin gazteen diskurtso ezak kezkatzen zuela. Harentzat, honako hau da bertsolaritza:

"Gaiak iradokitzen dizkizun pentsamenduak eta sentimenduak espontaneoki eta ahalik eta modu eraginkorrean adieraztea da kontua...". Sortze lana.

Ane Labaka bertsolariak bertsoa dibertsio, sormen eta ahalduntzearekin lotzen du, bere buruari galderak eginez eta gauzak zalantzan jarritz. Horretarako besteei entzun behar zaie, informazioa jaso behar da eta iritzia ematen ikasi. Eta garrantzitsuena: "Sormena ez da bukatzen zuk amaitzen duzun horretan, jasotzen duen harengan eragiten jarraitzen du".

Egañaren diskurtso ezari lotuz, gaur askok, eta ez bakarrik haurrak eta gazteak, gaztelerara eta erderara jotzen dute, aisialdirako tresnak erabiltzean. Sakelekoan, ikus-entzunezkoetan... beren beharrak, aukerak asetzen dituzten hizkuntzak direlako. Bertsolaritzan ludikotasun hori lantzen da, sentimenduak kanporatzeko, partekatzeko eta entzuteko aukera ematen duelako, taldekide sentituz.

Abenduaren 3e pasa da, gure intezixuk berritu beharko ditou, ahal bada hika eginez, gure komunikazixuk sortzean edozein gailu ibilita ere euskeraz. Maialen Lujanbiok 2009ko Txapelketa Nagusian esan zuen: "Herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz". ■■■

Bertsoa paperean

GAIA: Hala bazan ta ez bazan.

Izena: Silvia Etxaniz.

Doinua: *Aita izena*.

Abenduari kaixo esanda

jarriz atzera begira
pasa ditugun hilabeteak
arraroak izan dira
imaginatzen ezin gintezkeen
iritsi hain urrutira
honek guztiok astindu gaitu
bakoitza bere neurrira
ta gutxienez hontatik zerbait
ikasi bagendu, tira...

Pasa duguna pasa dugula

ezin da jarri zalantzan
baina ipuin bat bakarrik
balitz
hala bazan ta ez bazan
hogeia eta hogeita bata
sartu bitez kalabazan
hogeita bia askoz hobea
izango den esperantzan
ta ea Covidik gabe irteten
garen Azkoitiko plazan!

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzkoako Foruak
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.

2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitez

- gipuzkoa.eus/ticketbai
- Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
- 943 113 000
- ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/ticketbai



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeke altzariak
eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · 943-85 21 10 · www.biyona.net

**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak


**Cooking
& Chef**
EUKALDE GUNEAK

dyson v8
animal

XURGAGAILUA

Lehen 399 €

Orain 349 €



dyson ETXEAK DITU MERKATUKO
XURGATZAILE ONENAK,
eta **MILAR LARRAMENDI**
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es